



ANTZINAKO ARIMEN GAUAREN LEKUKO

Halloween eta AEBetako ohiturak gure artera ailegatu aurretik, Arimen Gaua kalabazekin ospatzeko usadioa zegoen Euskal Herrian. Herminia Lazpita berriztarra ohitura horren lekuko zuzena da / 4

Herminia Lazpita Besoitaogoena berriztarra, bizileku duen Legorreta baserriaren aurrean.

"Eskolan euskara komunikazio bidea izatea gura dugu, euskara ardatz izatea" / 6



EZKONTZAK 2024 / 13-24

Etxeak zelan berritu eta zelan bete

ANBOTOk etheen zaharberritzea aztertu du Tokikomek eta EITBk ondutako Saretzen egitasmoaren barruan / 2-3

HOME SCHMIDT HOME
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Azaroaren 4tik 30era
**UDAZKENEKO
ESKAINTZAK**

**ZURE
ALTZARIAK**

www.homedesign.schmidt

Abadiño



Etxebizitzak Durangoko Alde Zaharrean.

Zaharra zelan berritu

Durangoko Alde Zaharreko etxebizitzaren %20 hutsik daude. "Kasu askotan, herentzia bati loturiko pisuak izaten dira. Utzita egon dira luzaroan, eta mantentze faltagaitik zaharberritu beharrekoak dira batzuk", esan dute higiezin agentziek. Erreportaje hau Tokikomex eta EITBk elkarlanean ondutako Saretzen egitasmoaren zati da

Ekaitz Herrera ETXEBIZITZAK Durangoko Udalak 2022ko martxoan eman honako datuen berri. Udalerriko 1.400 etxebizitza baino gehiago hutsik daude, herriko etxebizitza guztien %10. Eta datua are eta zorrotzagoa da Alde Zaharrean, bertako bost etxebizitzatetik bat, %20, dago-eta bizilagun barik. Estatistika horiek bat egiten dute higiezin agentzien interpretazioan, etxe hutsok saldu edo alokatu ezinda ibiltzen dira eta. "Alde Zaharreko etxebizitzak aspaldikoak izan daitezkeen arren, hori ez da ezaugarri garrantzitsua. Kasu askotan, herentzia bati loturiko pisuak izaten dira. Eta bai propietatea pertsona askoren delako, edo baita sentimentalismoagaitik ere, etxe horietan inor ere ez da bizi izan urte askoan, eta, ondorioz, mantentze falta handia izaten dute. Luzaroan bere horretan utzitako etxeak izaten dira; azkenean, zaharberritu beharrekoak", azaldu du Nerea Uribe, Fernando Uribe higiezin agentziako ardura-dunak.

Edozelan ere, Uribe argi utzi du zaharberritzeko premian dauden etxebizitzaren eta egune-

ratze bat edo beste behar duten etxebizitzaren arteko aldea. "Kontzeptu desberdinak dira eta jende askok nahastu egiten dituela uste dugu. Zaharberritzeko premian dagoen etxea bertara bizitzera sartu ezin daitekeen higiezina da. Hau da, nahitaezkoa izaten da etxea berritzea. Kasu hauek ez dira asko, %5-10 artean egon daitezke. Beste kontu bat etxebizitzari gaurkotze bat egitea da. Etxeak obra behar al du? Batzuentzat, bai; beste batzuentzat, ez. Izan ere, etxean dauden komun, ezkaratz edo altzariak ez gustatzeak ez du esan gura bertan bizi ezin daitekeenik. Norbanako bakoitzaren arabera, desberdina izaten da eskaera", azpimarratu du Uribe.

"Aldizkarietako etxebizitzak" Azken urteotan joera berri bat antzeman dute Fernando Uribe higiezin agentzian. "Sare so-

"ALTZARIAK EZ GUSTATZEAK EZ DU ESAN GURA ETXE ASKOTAN BIZI EZIN DAITEKEENIK"


zialen eta kontsumitzen dugun iruditegiaren eraginez, askok aldizkarietan agertzen diren moduko etxeak gura izaten dituzte. Baina ezinezkoa izaten da lehenengo eskuko etxebizitza batek eskaintzen duena bigarren eskuko etxebizitza baten prezioan eskuratzea", argitu du Uribe. "Komuna berri edo moldaketa puntual bat egitea nahiko arrunta izaten da, baina gertatu izan zaigu bizitzera sartzeko prest dauden etxeetan jabe berriek dena goitik behera aldatzea. Berez, etxeak ez du zaharberritzeko premiarik, baina askok beharrian modura ikusten dute zaharberritze hori.

Prezioaren baldintza Egoera baldintzatzen duen beste gai bat etxebizitzaren prezioa da, jakina. "Prezioak ez dira orain urte batzuetakoak. Koronabirusaren sasoiaren, hainbat etxe 50.000 euroan saldu genuen. San Fauston, adibidez, 60.000 euroren bueltan saldu genuen asko. Gaur egun, ostera, ez dira 100.000 eurotik jaisten. Merkatuak gora egin du, eta, oraingoz, ez du jaisteko itxurarik", aurreikusitu dute.

Datuak, egoeraren erakusleho

Etxebizitza hutsak Durangon

■ Etxebizitza beteak ■ Etxebizitza hutsak




Hutsik. Durangoko Udalak 2022ko martxoan kaleraturiko datuen arabera, Alde Zaharreko bost etxebizitzatetik bat hutsik dago. Alde Zaharreko Hegoaldean %22 daude hutsik. Eta Alde Zaharreko Iparraldean, %17,5.

Durangaldeko etxebizitzaren antzintasuna, urtetan



Antzintasuna. Goiko grafikoan ikus daitekeenez, landa eremuko herrietan etxebizitza zaharxeagoak daude. Kontrako puntuak, berriz, udalerririk populatuena ageri dira, Durango eta Zornotza. Datuak IKEI ikerketa etxearenak dira, 2024koak.

Igogailua duen etxebizitza kopurua Durangaldean, ehunekotan (%)



Igogailuak. Durangoko hamar etxebizitzatetik zortzik baino gehiagok igogailua dute Durangon. Zornotzan eta Abadiñon, hamarretik zazpik. Erdiko tarte batean kokatzen dira Elorrio, Atxondo, Berriz eta Zaldibar. Izurtzan eta Garain apenas dago igogailurik. Datuok IKEA ikerketa etxearenak dira (2024).

Ekaitz Herrera ZAHARBERRITZEAK

Markel Arbulu arkitektoak (Durango, 1995) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako etxebizitzek egin beharko luketen eboluzioa ikeritu du, Europak 2050ari begira markaturiko deskarbonizazio helburuetara ailegatu ahal izateko. Arbuluk EHUren Donostiako Arkitektura Fakultatean lan egiten du, ikerlari legez. Doktore-tesia idatzita dauka jada eta abenduan aurkeztuko du ikerlana.

Durangaldeko etxebizitzak zelan daude Europak markaturiko deskarbonizazio helburuetatik?

Egoerari dagokionez, urruti gaude, eta helburuetara heltzeko planifikazioari erreparatzen badiogu, oraindino urrutiago. Aramotz berritzeko proiektua, esaterako, oso adibide ona da deskarbonizazio helburuen norabidean jartzen hasteko, baina, tamalez, kontuan hartu behar dugu administrazio publikoak oraingoz ez duela baliabiderik eredu hori auzo guztietara hedatzeko.

Aramotz ispilu modura erabili behar dugu?

Eredu bat zein izan daitekeen erakusten digu. Durangon horrelako zeozer egin izana gauza ederra da, baina denok jakitun gara horrek esfortzu ekonomiko bat eskatzen duela. Bizilagunek, besteak beste, dirua inbertitu behar izan dute. Bestalde, orokorrean, administrazioen partetik gai hauei osotasunean heltzeko plan baten falta igarri dut. Etxebizitza bat berritu gura badugu, ez dago plan estrategiko, kuantifikatu eta definitu bat hori zelan egin azaltzeko. Lurralde, nazio eta Europa mailan ez gabiltza gidalerro eta norabide berak partekatzen.

Badago estatistikarik? Gure etxebizitzak zelan daude lortu beharreko helburuei dagokienez?

Euskal Autonomia Erkidegoan, oraingoz, ez dago helburua lortzeko bidean ondo goazen ala txarto goazen markatzen duen adierazlerik. Ez da datu nahikorik jaso orain arte. Eta jarra aldatu eta hau guzti hau hobekuntza eta inbertsio modura ulertzen hasi behar dugulakoan nago. Gure herrietako eta auzoetako kaleak oinezkoentzat egokitzen hasi ginenean ere izan ziren kezak. *'Non aparkatuko dut orain? Zelan ezin dudala etxeraino autoz joan?'* Kasu honetan ere antzerako zeozer dau-

"Gure etxeak urruti daude deskarbonizazio helburuetatik"

MARKEL ARBULU DUDAGOITIA ARKITEKTOA

Markel Arbulu arkitektoak Euskadiko etxebizitzek deskarbonizazioa lortzeko bidean egin beharreko eboluzioa aztertu du bere doktore-tesian. Abenduan aurkeztuko du



Markel Arbulu. JORGE NAVARRO. KOMUNIKAZIO BULEGOA, EHU

kagu. Hau guzti hau inposizio modura ulertu barik, aukera modura ulertu behar dugu. Kontzientzia hartu eta iritzi publikoan eragiten hasi behar dugu, administrazioa mugitu eta elkarlanean aurrera egin dezagun. **Nazioartean badago eredu modura hartzeko moduko esperientziarik?**

Adibideren bat edo beste egon badagoen arren, Europa, orokorrean, nahiko atzeratuta dabil alor honetan. Gauzak aldatzeko, zirriborroak ipini dira mahai gainean, baina erregai fosilen lobbyak boteretsuak dira. Aramotzeko adibidera joko dut berriro, hor administrazioak eta herritarrek bide bat egin dute eta elkarlanean. Eguzki plakak ipini dituzte, eta, kaleko tenperatura erregulatzeko, adibidez, natura txertatu dute hiriko elementuetan. Ez dakit noiz ikusiko dugun berritze energetiko honen emaitza, baina esanguratsua iruditzen zait administrazioak eta herritarrek egindako elkarlana. Orain, hiri mailako zeozer barik, lurralde mailako zeozer behar dugu norabide komun bat izateko.

"JARRERA ALDATU ETA HAU GUZTI HAU AUKERA MODURA ULERTZEN HASI BEHAR DUGU"

Gure kale eta auzoetan ohikoa izaten da etxebizitzek fatxadak berritzea. Esku hartze horiek deskarbonizazio helburuak lortzeko bidean ipintzen gaituzte?

1980 baino lehenago eraikitako etxebizitzetan esku hartze pasiboak egitea, hau da, teilatua isolatzea, leihoak aldatzea edo fatxada berritzea, onuragarria da, baina ez nahikoa. Ekintzok geroago egin beharreko pauso baten osagarri izan daitezke. Bigarren pauso hori gasa berotzeko sistema erregai fosiletatik elektrizitateara pasatzea da, hain zuzen ere. Alde horretatik, aeroterma sistema erabiltzea da aukerarik onuragarriena. Aeroterma, labur esanda, etxe barrura sartzen du kanpoko beroa, nahiz eta kanpoan hotz egin. Elektrizitateagaz funtzionatzen du, eta hainbat ikuspegitatik hobetzen ditu etxeko konforta, ingurumen inpaktua eta ekonomia. Oso sistema efizientea da. Gainera, elektrizitate bidez funtzionatzen duenez eta elektrizitatea sortzeko geroago eta energia berriztagarri gehiago erabiltzen dugunez, joera horregaz gas isurketak gutxituko ditugu.

Ipini ditzagun adibideak. Durango etxeek, adibidez, zein bide egin beharko lukete deskarbonizazioaren bidean?

Durango Alde Zaharreko etxeak, adibidez, 1900. urtea baino lehenagokoak dira. Kasu horietan, teilatua, leihoak eta fatxada berritzea beharrezkoak izan daitezke, baina, lehen esan dudan moduan, benetan gomendagarriena gasa berotzeko sistema betiko galdaratik aeroterma pasatzea da. San Fauston, adibidez, 1950eko hamarkadatik honako etxeak ditugu. Eta horietan Alde Zaharreko etxeekin aipaturikoa aplikatu dezakegu. Tabira aldean, ostera, 2000ko hamarkadan egindako etxebizitzak ditugu. Inguru horretan, fatxadako isolamendua konpontzen ikusi izan ditut. Esku hartze hori hezetasunak eta konpontzeko bada, ondo dago, baina kontuan hartu behar dugu 1980tik honako etxebizitzetan, aparteko arazorik ez badago, fatxada isolatzeak ez duela hobekuntza nabarmenik eskaintzen. Hori argi eta garbi esango nuke. 90eko hamarkadako etxebizitza batez ez nuke fatxada ikuspegi energetikotik berritzeko hauturik egingo. Aeroterma instalatuko nuke, zuzenean.



Herminia Lazpita Besoitoagoena, Berrizko Legorreta baserriko etartearen ondoan.

"Arimen Gaueko kalabaza elizako dorrean ipintzea itzela izan zen"

HERMINIA LAZPITA BESOITAGOENA ANTZINAKO ARIMEN GAUAREN LEKUKOA

Halloween eta AEBetako ohiturak gure artera ailegatu aurretik, Euskal Herrian Arimen Gaua kalabazekin ospatzeko ohitura zegoen. Lazpita ohitura horren lekuko zuzena da

Ekaitz Herrera ARIMEN GAUA

Berrizko Hormastegi baserrian jaio zen, 1935ean, eta ondo-ondoan dagoen Legorreta baserrian bizi da gaur egun. "90 urte egingo ditut laster", dio irribarre abegikorra ahoan. Halloween eta Ameriketako Estatu Batuetako ohiturak gure artera ailegatu baino lehenago, Euskal Herrian ospatzen zen Arimen Gauaren lekuko bizia da Herminia Lazpita. Amama Maria Kristina Aldekoaren ahotik jaso zuen kalabazak hustu, aurpegi itxura

eman eta ortuaria kandlekin argiztatzeko aspaldiko ohitura, etxean bertan. Gero, praktikara eramane zuen, kalabaza argiztatua elizako kanpandorrean herriar guztiek ikusteko moduan ipinita.

"AMAMAGAITIK DAKIT ARIMEN GAUEAN KALABAZAK IPINTZEKO OHITURA ASPALDIKOA DELA"

Kalabazak hustu eta kandlekin argitzeko ohitura aspaldikoa da Euskal Herrian, eta zu zeu zaitugu horren lekuko.

Etxeetan ere ipintzen ziren inoiz kalabazak, baina nik Berrizko elizako kanpandorrera igo ginenekoa dut akorduan. Berrizko baserri batera joan ginen kalabaza eskean, eliza ondoko baserri batera. Hartu genuen kalabaza, hustu genuen gero barruko argia kanpora atera zedin, eta begiak, sudurra eta ahoa egin genizkion; kanpandorreko

arkuetariko batean ipini genuen, kanpaiaren kontra. Han egon zen kalabaza, barruko kandela amatatu zen arte. Gero, sakristauak-edo kenduko zuen, hura joaten zen-eta kanpaiak jotzera. Ekintza hori behin egin genuen, sakristauak kanpandorrerako atea zabalik utzi zuen batean. Abadeari esan ere ez genion egin. Kalabaza ipini eta aire. Beste urte batzuetan ere ahalegindu ginen ohitura errepikatzen, baina ordurako atea itxi egiten zuen sakristauak.

Zelan jaso zenuten ohituraren berri? Ohitura bat zen, lehenagokoek esandakoa. Gure amamak esaten zigun "Arimen Gauean, lehen, ba hauxe eta hauxe egiten zen", eta guk, ba egin.

Zelan zuen izena amamak?

Maria Kristina Aldekoa. Berrizko mojen komentuarien barruan etxetxo bat dago: Errota. Amama bertakoa zen, han jaiorikoa. Hartu-eman handia izan nuen beragaz; izan ere, elkarregaz lo egiten genuen. Oso kontularia zen. Lehengusuek ere esaten zidaten, "Herminia! Zu beti amaren atzetik!". Arimen Gauean etxeetan kalabazak ipintzeko ohitura aspaldikoa zela berak esan zidan, eta nik kanpandorrean kalabaza ipintzeko ideia proposatu nien Berrizko ume batzuei. "Bai, bai, bai!" erantzun zuten umeek. Kalabazaren begiak ikusi, eta umeak barrezka hasi ziren; kalabaza kanpaiaren ondoan ipini genuenean, barreak algarra bihurtu ziren. Ilunkeran ipini genuen eta han geratu zen, kandela amatatu arte. Amaitzen zenean, akabo.

Zenbat urte zenituen orduan?

Hamazortzi-hemeretzi bat. Umeen-eta asko ibiltzen nintzen orduan, irlandarak zelan dantzatu erakusten nien eta. Kanpandorrerako eskailera ondo ipinita egongo da orain, baina sasoi hartan ardura zen umeekin hara igotzea. Taula batzuk ziren, bitarteekin. Eta pentsa zelako altuera dagoen kanpandorretik behera! Azañatxo bat izan zen, azañatxo bat egitea.

Eta zuek zelan zeundeten jantzita? Jantzi berezirik bazenuten soinean?

Ez, ez, ez, normal jantzita geunden. Kanposantuko egunak izaten ziren. Kanposantura joan eta hantxe batu ginen. "Ipiniko dugu kalabaza kanpandorrean?", esan genuen. "Utziko ote digute?", erantzun zuten ume batzuek. Igo ginen, eta egin genuen. Esan-

go nuke Olakuetara begira dagoen arkuan ipini genuela, herriko bizimodurik gehiena alde hartan zegoen eta.

Akorduan daukazu kalabaza zein baserri hartu zenuten?

Ez dakit seguru. Etxezurian izango zen. Etxezurian ala... han, elizostean, hiru etxe zeuden... euretariko batean izan zen, baina ez naiz akordatzen non.

Azken urteotan, Euskal Herriko hainbat bazterretan ugaritzen da biltza garai bateko Arimen Gaua berreskuratzeke ekintzak. Zer irizten diozu?

A, bai? Ez dakit. Gure sasoi ondo irizten genion kalabaza hustu eta barrutik argitzea; gazte usaina zan-eta, zoro usaina (barrez). Baina, jakina, kalabazak hildakoren baten burezurra irudikatzen zuen, horixe zen bere esangura, eta hori beti izaten da triste. Bestalde, ez dakit ba nik, lehenago ohiturak kontserbatzea ona da, ondo irizten diot. Antzinako gauzen falta igartzen dut. Gaur egungo gazteek ez dute honen guzti honen berririk. Orain dena da haserrea. Lehen, jendea elkar laguntzeko prest egoten zen, baterako zein besterako. Udala, abadea, mojak... denak. Guri, adibidez, Berrizko mojek erakutsi ziguten dantzan. Irlandaren dantza, hemen egiten zena, eurek erakutsi ziguten.

Arimen Gaua dugu gaurkoa.

Bai, baina ez gaude eskailera igotzeko moduan! (barrez).

Arimen Gaua Durangaldean

Iluntze honetatik aurrera, gau magiko bezain beldurgarria nagusituko da Durangaldeko kaleetan. Eskualdeko herrietan, Arimen Gaua edo Gaba Baltza ospatuko da. Herririk herri antolatuta dituzten ekin-tzen artean, kalabazak hustu eta dekoratzeko tailerrak, diskofesta beldurgarria, txistor-jana, aurpegi margo-ketak, umeentzako ibilbide beldurgarriak, txokolatadak eta zinema saioak daude. Arimen Gaueko ekintza guztiak astekari honetako 27. orrialdean kontsultatu daitezke, Agenda atalean.



Josune Escota, Mireia Elkororibe, Jesica Ruiz eta Sara Oceja.

Merkatu plaza eta Plateruena 2025erako proiektuen artean

Gobernu taldeak herritarrek "erdigunean" ipintzen dituen 45,7 milioi euroko aurrekontua landu du

A. Basauri DURANGO

EAJk eta PSE-EEK osaturiko gobernu taldeak 2025erako aurrekontu proposamena aurkeztu die, asteon, gainerako alderdiei. Erakunde autonomoak barne hartzen dituen aurrekontua 45,7 milioi eurokoa da. "Durangarren ongizateagaz dugun konpromisoa islatzen duen aurrekontua da, enplegua sortzera eta ekonomia dinamizatzen bideratua", adierazi zuen Mireia Elkororibe alkateak. "Pertsonak erdigunean ipinita, baliabideak era eraginkorren erabiltzea bermatzen du, bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko", gaineratu zuen.

Tabirako igerilekuetako aldagela berriak — 2026ko udarako izan gura dituzte prest—, Merkatu Plazaren birgaitze eta dinamizazioa (304.770 euro), Antso Estegiz kalea eraberritzeko bigarren fasea (474.667 euro) eta Plateruena berriro martxan ipintzea. Proiektu horiei ekin gura diete EAJk eta PSE-EEK datorren urtean. Era berean, Trenbideko BEPB proiektuan lanean jarraituko dute. Argiteria publikoa hobetzeko (859.485 euro) eta segurtasuna indartzeko (3.956.123 euro) loturiko partidak ere azpimarratu dituzte.

Aurrekontu "zorrotza"

Josune Escota antolaketa arduradunak adierazi du aurrekontu "zorrotza" dela. "Izan ere, diru sarreraren zatirik handiena Udalkutxaren ekarpenetik dator: 24,1 milioi euro inguru; iaz baino %3,57 gehiago. Baina iagoera hori

nabarmen gutxitu da aurtengo aurrelikidazio negatiboagaz: 893.847 euro bueltatu behar dizkiogu Bizkaiko Aldundiari", argitu du. Gainerako diru sarrerak egungo lege eta ekonomia egoeretara egokitu behar direla gaineratu du, "udalerraren premiei erantzuten jarraitzeko".

Aurrekontua zenbakitan

Sei arlotan banatu dituzte udal kontuak, aurrekontu parte hartzaileetan lehenetsitako ekarpenak ere batuta.

Arlo estrategikoak

- Adinekoak: 933.179 euro.
- Gizarte ekintza eta inklusioa: 1.554.521 euro.
- Kirola: 587.503 euro.
- Kultura eta euskara: 4.770.510 euro.
- Berdintasuna: 506.639 euro.
- Enplegua eta prestakuntza: 465.576 euro.

Aurrekontu parte hartzaileak

- Parke berdea: 100.000 euro.
- Tabirako txartel-eremuko argiztapena: 30.000 euro.
- Gazteentzako musika jaialdia: 20.000 euro.
- Edukiontzia lagunkoiak: 50.000 euro.

Maristak Durangok 120 urte



Urteurrenari ekiteko saioa.

A. Basauri DURANGO

Maristak Durango ikastetxeak 120 urteko ibilbidea ospatuko du ikasturte honetan. Urriaren 24an, urteurrenari hasiera emateko ekitaldia egin zuten. Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburua eta Jon Labaka Lanbide Heziketako sailburuordea izan ziren ekitaldian. Durangoko alkate Mireia Elkororibek, Orbea kooperatibako zuzendari Jon Fernandezek eta Maristak Euskadi Fundazio-ko zuzendari Jaime Comabellak ere parte hartu zuten.

MUSIKALDIA



AZAROAK 8

19:00 KULTUR ETXEAN

RS BASQUE FACTOR

"EQUANIMITY"



AZAROAK 15

19:00 KULTUR ETXEAN

ZINEMA PARADISE

"MOON FIELDS TRIO"



AZAROAK 22

19:00 KULTUR ETXEAN

IRATI BILBAO

"BLOOM"



IURRETA
Dua eta lehen / Vive y adelante

Gonbidapenak Ibarretxe Kultur Etxean jasoko dira ikuskizunaren aurreko astean edo egunean bertan 18:30etatik aurrera.



PLAZA MUGATUAK: SARRERA GOBIDAPENAREKIN





Zaldibarko Euskal Herria etorbidea.

Prozesu parte hartzailea hasi dute mugikortasuna hobetzeko

Eguaztenean herritarren iritzia jaso zuten kalean. Azaroaren 6an diagnostikoa partekatuko dute

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak legegintzaldi honetan aurreikusitako beste erronka bat garatzeari ekin dio: prozesu parte hartzaile bat hasi du herriko mugikortasuna hobetzeko helburuz. Bertan, herritarren ekarpenak oinarri hartuta, udalerrriak etorkizunean behar duen mugikortasuna diseinatuko dute. Eneritz Azpitarte alkateak azaldu duenez, "herritarrek, egunerokotasunean bizitzen dituzten egoeretatik abiatuta, hobetu beharreko aspektuak plazaratu ahal izango dituzte; izan, ume, gazte zein heldu, ala izan oinezko, txirindulari zein auto-gidari". Hain zuzen ere, prozesu parte hartzailean zehar genero ikuspegia eta herritarren adin tartea kontuan hartuko dituzte.

Prozesu parte hartzailearen lehenengo lan saioa aste honetako eguaztenean egin zuten.

Prozesua dinamizatzeaz arduratuko diren teknikariak udalerriko hainbat puntutan egon ziren herritarrek galdekatu eta haien iritzia lehenengo eskutik jasotzen. Elkarrizketa saiook San Andresen, Alde Zaharrean, Artian, eskolako jolaslekuan eta Nagusien Etxean egin zituzten.

Diagnostikoa

Azaroaren 6an, jardunaldi parte hartzaileek emandakoak aletuko dituzte, bilera orokor batean. Diagnostikoa osoko bilkuren aretoan aurkeztuko dute, 18:30ean.

Eguaztenekoa prozesuaren lehenengo saioa izan da, baina udal iturriek iragarri dutenez, beste hainbat ekintza egingo dute. Tartean, ekintza plana zehaztu eta beste bilera orokor bat egingo dute. Alkateak prozesuan parte hartzera deitu ditu herritarrek.

"Euskara komunikazio bidea izatea gura dugu"

NAGORE AGIRREBEITIA FONTETXA OTXANDIOKO HERRI IKASTETXEKO ZUZENDARIA 'Euskara eta kulturartekotasuna gure hezkuntza komunitatean' egitasmoa ipini dute martxan Otxandioko eskolan, UEMAK bultzatuta eta udalak lagunduta

Aitziber Basauri OTXANDIO

Otxandioko eskolan, UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak babestuta, euskara eta kulturartekotasuna uztartzen dituen proiektuan lanean hasi ziren joan zen ikasturteko apirilean. Eta ikasturte berriagaz hainbat neurri hartu dute, Nagore Agirrebeitia zentroko zuzendariak azaldu duenez. Talde eragile bat dago egitasmoa kudeatzeko, eta irakasleak, gurasoak, udala eta UEMA daude ordezkatuta talde horretan.

Zein da egitasmoaren helburua?

Batetik, eskolan euskara komunikazio bidea izatea gura dugu, euskara ardatz izatea, eta, bestetik, egiten diren batzar eta saioetan euskaraz ez dakiten familien ulermena erraztea eta eskolan euren parte hartzea bultzatzea, horretarako zenbait baliabide jarrita eskura.

Zeintzuk dira baliabide horiek?

Hasteko, ikasturte hasierako batzarrean aldibereko itzulpena egin genuen gaztelaniara, Telegram aplikazioaren bitartez. Horrek batzarrak euskaraz egiteko aukera eman digu. Baloratu genuen ea herrian izango ote zen inor arabierara edo frantsesera aldibereko itzulpena egiteko. Baina ez dugu euskaratik hizkuntza horietara itzultzeko aukerarik



Agirrebeitia, eskolaren atarian.

izan. Bestalde, informazioa zabaltzeko, Telegram kanalak sortu ditugu, mailaka. Eskolatik euskaraz idatzitako oharrak itzultzeko aukera ematen du horrek. Euskaraz ez dakiten familiek aukera dute bidalitako oharra euren hizkuntzara itzultzeko, momentuan klikatuta. Gainera, taldeak sortu ditugunez, gurasoek euren hizkuntzan idatzi dezakete, eta guk euskarara itzultzen dugu. Egitasmoa azaltzeko, hainbat hizkuntzatan bidali genien informazioa gurasoei, UEMAREN laguntzagaz.

Zelako harrera izan du egitasmoak?

Oso erantzun ona izan du. Euskaraz dakitenek ez dute euren hizkuntza zapalduta ikusten. Eta jatorri atzerritarra dutenek ere oso ondo hartu dute. Irailaren hasieran aurkeztu genion irakaslegoari; UEMAKo ordezkarik bat etorri zen. Saio bi egin genituen. Ondoren, herri mailako aurkezpena egin genuen, eskolako gimnasioan. Familiak, UEMAKo ordezkarikak eta gu geu egon ginen. Oraingoz, egitasmoa eskolan ipini da martxan, baina etorkizunari begira herrira zabaltzea da helburua. Udala ere badago egitasmo honetan sartuta.

Zeintzuk dira hurrengo pausoak?

Aldibereko itzulpenagaz jarraitzea da asmoa. Euskaraz ez dakiten familien parte hartzea bermatu gura dugu eskolan, onuragarria delako haien seme-alabentzat, haien integratuziorako. Euskaraz dakiten eta ez dakiten familien arteko hartu-eman sendotzea eta indartzea ere gura dugu. Euskara eskolan ardatz izan behar duela uste dugu, baina ahaztu barik beste hizkuntza batzuk ere badaudela. Euskaraz ez dakiten familia horiekiko eta euren hizkuntzagazko jarrera abegikorra izatea ere badu helburu egitasmoak.

Gernika helburu

E.H. GARAI

Gaur, urriak 31, Garaiko 24 herritarrek parte hartuko dute nagusien elkarteak Gernikako Batzarretxea, hango beirateak eta Gernikako Arbola ezagutzeko antolatuta duen irteeran. 16:00etan irtengo dira, plazatik. Bestalde, elkarteak kideak "buru-belarri" dabilta ekintza eta irteera berriak prestatzen.



TURISMOA EUSKADI

Euskarara hurbiltzeko bideak urratuz


Huhezi Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateagaz elkarlanean sortu du UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak kulturartekotasuna eta euskara uztartzen dituen egitasmoa, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz zabaldu du. Zaldibian ipini zuten martxan lehenengoz, 2021-2022 ikasturtean.

Ekimenaren bultzatzaileek euskara zaindu eta sustatu gura dute. Baina bide berriak ere bilatu gura dituzte euskaraz ulertzen ez dutenak komunitatera hurbiltzeko eta parte aktibo izateko. Eta abiapuntua hezkuntza komunitatea bada ere, aurrera begira herrira zabaltzea litzateke programa honen helburua. Joan zen ikasturtean antolatu

ziren topaketetan parte hartu zuten Otxandiok, proiektuan sartuta dauden beste herri batzuekin batera. Pozik daude emandako pausoekin. "Gurasoen harrera ona ikusita, aurrera jarraituko dugu. Beste herri batzuetan ere badabilta askotariko ekintzak antolatzen euskara sustatu eta kulturarteko hartu-eman sendotzeko, eta Otxandion ere bide horretatik joango gara", esan du eskolako zuzendariak.

Oraindik ez zara ANBOTOko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu **Anbotoko**
whatsapp kanalera



Eskaneatu
QR kodea:



* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

Progresibitatea ezarrita, zergak berrituko dituzte

Asteon egindako osoko bilkuran ordenantza fiskalak onartu dituzte. Gobernu taldearen proposamena EH Bilduren eta Abadiñoako Independentteen aldeko botogaz onartu dute

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Joan zen astean, progresibitatea sustatuz, gobernu taldeak ordenantza fiskalak berritzeko proposamena aurkeztu zuen, eta asteon egindako osoko bilkuran onartu egin dute. Gobernu taldekoek azaldu dutenez, ordenantza fiskal hauek helburu argi bi dituzte: "Inor atzean ez geratzea eta udalaren ahalmen ekonomikoa ez murriztea". Beraz, hori gauzatzeko, progresibitatea bultzatuko dute. "Gure helburua Abadiñoako pertsona guztiak zerbitzu publiko guztiak eskura izatea da, eta, aldi berean, horretarako behar diren baliabideak izatea. Hori progresibitate irizpideak aplikatuta lortzen da", azaldu zuen Mikel Urrutia alkateak.

Hori horrela, aldaketak egongo dira hainbat zerga eta tasatan: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, estolderiaren gaineko zergan eta Astolako kiroldagiko prezio publikoetan, besteak beste. Bestalde, hobarien taula bat ere garatu dutela jakinarazi



Martitzeneko osoko bilkura Abadiñon.

dute. Deskontu horiek hainbat tarifatan aplikatuko dituzte: zaborretan, estolderian, udalekuetan eta hilerrian, besteak beste. "Guretzat oso garrantzitsua da abadiñar guztiak aukera berdina izatea", adierazi zuen prentsurrekoan Ederne Maguregi alkateordeak.

Unzalu Salterain EH Bilduko zinegotziak aurkeztu zuen pro-

posamena gobernu taldearen izenean, urriaren 29ko osoko bilkuran. EAJko eta PSE-EEko zinegotziek proposamenaren kontra bozkatu zuten. Oposizio talde biak kritikako agertu ziren, bai hobarien taulagaz, eta baita Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan egindako aldaketagaz eta beste zerga eta tasetan egindako aldaketagaz ere.

Gonzalez-Castaño bikotea eta Urrutia nagusi Mallabian

Asteburuan erabaki dira Mallabiko frontenis maratoiko txapelkunak; bai bikoteka baita banaka ere



Eloy Gonzalez eta Sergio Castaño, irabazleen txapelagaz. MALLABIA K.E.

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Asteburuan Mallabiko frontenis maratoia jokatu da eta bertan aurtengo bikotekako eta banakako txapelkunak nortzuk diren erabaki da. Bikoteka, Burgosko Eloy Gonzalezek eta Errioxako Sergio Castaño irabazi zuten, Aitor Maezturen eta Arkaitz Martinezen aurka. Guztira, 20 bikotek parte hartu zuten 13 ordu iraun zuen txapelketan.

Banaka Urrutia nagusi

Banako maratoiko txapela Mikel Urrutia abadiñarrak lortu zuen. Urrutiak Andoni Aldape mallabitarraren aurka jokatu zuen finala eta etxekoak ezin izan zuen irabazi. Hirugarren postua Endika Romerorentzat izan zen. Romerok Mikel Rodriguezi irabazi zion hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke partidua.



Ederne Maguregi, Amaia Barandalla, Lorea Iriando eta Mikel Urrutia.

Astelehenetik aurrera, erosketa bonuak herritarren eskura

Bonuak hilaren 30era arte trukatu ahal izango dira. Guztira, 29 establezimenduk hartuko dute parte kanpainan

M.Z. ABADIÑO

Azaroaren 4an, merkataritzarako bonuen programa berri bat ipiniko dute martxan. Udaletik jakinarazi dutenez, herriko merkataritza sarea indartzea eta gehien behar duten pertsonen babesa eskaintzea da kanpainaren helburua. Horretarako, 50.000 euro erabiliko dituzte, 10.000 bonutan banatuta.

Erosketa bonuen banaketa azaroaren 4an hasiko da, eta izakinak agortu arte egingo da. Zelaietan, Muntzaratzen, Mendiolan, Sagastan, Urkiolan, Gazteluan eta Amaiterminen bizi direnak uda-

letxera joan beharko dute bonuak erostera, goizez, edo Mediatekara goizez zein arratsalde. Gererdiagan, Traña-Matienan, Lebarion eta Astolan bizi direnak Traña-Matienako udal bulegora joan beharko dute, goizez, edo Errota Kultur Etxera goizez edo arratsalde.

5 euroko bonuak izango dira. Langabezian dauden pertsonen hamabina bonu jaso ahalko dituzte; 1.080 eurotik beherako pentsioa duten pertsonen, beste hamabina; 1.080 eurotik gorako pentsioa dutenek, launa bonu; eta 18tik 64 urtera bitarteko pertsonen, bina bonu.



Martitzenean tabernaren aurrean egindako elkarretaratzea.

Xirimiriko langileak kalera irten dira euren egoera salatzeko

M.Z. ABADIÑO

Martitzenean, Xirimiri tabernako hiru langilek prentsurrekoa egin zuten, Langile Autodefentsa Sareko kideen babesagaz. "Langile batzuk nomina kobratu barik egon gara hiru hilean; 24 orduko disponibilitatea izatea eta ordu estrak egitea eskatu digute, baina ez digute ordaindu", adierazi zuten. "Eta hori gutxi balitz, aurretiaz ezer esan barik asteon kale gorrira bota gaituzte", salatu zuten. Enpresako jabeek Xirimi-

ri "sostengaezina" zela azaldu diote ANBOTOrri, eta argitu dute martxan dutela ordainketak egiteko plana. "Abokatuekin eta CCOO eta LAB sindikatuekin ibili gara hau kudeatzen", zehaztu dute. Xirimiriko jabeek beste taberna batzuk ere badituzte Durangaldean, horietako bat Iurretan. Hango arduraduna ANBOTOGaz hartu-emanetan ipini da, eta, azpimarratu duenez, Xirimiriko arduradunekin "inoiz ere ez" dute arazorik izan.



30 euro
urtean!

Okm:
batzen gaituen
distantzia




Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Errigoraren eskutik
Euskal Herriko
produktuen otzara.



**Hotel Balneario
Areatzan** gau bat,
logela bikoitza,
gosaria eta zirkuitu
termala bi
lagunentzat.

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Aukan izozkiak: Amaia Aixe.
Xiberu tabernan gosaria: Joseba Berriotxo
eta Ziortza Sarrionandia.
Errigora otzara: Urtzi Rementeria.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Juan Orobiogoiatiako ikasleek janari sortak prestatzen laguntzen dute. IURRETAKO UDALA

Iurretako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu du JAEDegaz

Udalak diru laguntza bat bideratuko du egoera
ekonomiko "larrian" dauden pertsona eta familientzat

A. Basauri IURRETA
Iurretako Udalak eta JAED el-
kartek lankidetzaz hitzarmena
sinatu dute "egoera ekonomiko
eta sozial kritikoa" dauden
herriko pertsonak artatzeko.
Hartara, udalak diru laguntza
emango dio elkarteari, eta eli-
kagaien banaketa egiten lagun-
duko du. Ekimenak "pertsona
eta talderik behartsuenen gizar-
teratzea sustatzea" du helburu.

JAED 1963an jaio zen eta ba-
liabide ekonomiko urriak dituz-
ten pertsona eta familiei ematen
die arreta. Astero elikagaiak
erosten dituzte, janari sortak

prestatzeko eta behar duten fa-
milien artean banatzeko.

Proiektu komunitarioa

Iurretako Juan Orobiogoiatiako
instititutuko DBHko 3. mailako
ikasleek JAEDek bultzaturiko
proiektu komunitarioan parte
hartu dute aurten ere. Astean
behin, ikasleak elikagai sortak
prestatzen laguntzera joaten
dira. Aurten, jostailuak eta ipui-
nak biltzeko kanpaina bat ere
egingo dute. Itxaso Igarzak, Ins-
titutuko Berrikuntza arduradu-
nak, ikasleen "jarrera ona" az-
pimarratu du.

Egidazuk ipuin kontaketa saioa egingo du Mañarian

Amaia Egidazu
durangarraren 'Batbirulau'
izeneko saioa astelehen
arratsaldean izango da

J.D. MAÑARIA

Mañariko Udalak ipuin konta-
keta saioa antolatu du datorren
astelehenerako. 18:00etan izan-
go da, liburutegian. Bertan,
Amaia Egidazu durangarrak
Batbirulau ipuin izeneko saioa
egingo du. Hirutik zazpi urtera
bitarteko umeei zuzenduta dago.

Ipuinak kontatzeko askotariko
adierazpideak erabiliko ditu
Egidazuk. Saio dinamikoa pre-
tatu du eta umeak ez dira ent-
zule soilak izango. "Ahozgoran,
liburuekin, abestuz nahiz gor-
putzagaz" kontatuko ditugu
ipuinak, aurreratu du Egidazuk.

Adinaren arabera

Egidazu aurretik ere egonda
dago Mañarian, baina erreper-
torio zabala du eta ipuin berriak
kontatuko ditu, aurretik Maña-
rian kontatu bakoak. Bertaraten
diren umeen adinaren arabera,
ipuin batzuk edo beste batzuk
aukeratu ditu.

Lur Usabiagaren saioa, Izurtzako hurrengo ekintza

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak hainbat ekimen
antolatu du ikasturte berriari
begira; erabilera anitzeko lokalean
izango dira. Hurrengo ekimena
Lur Usabiagaren *Munstro bat*
liburutegian ipuin kontalaritza
saioa izango da. Bost urtetik
gorako umeei zuzendurikoa da
eta azaroaren 22ko barikuan
izango da, 17:30ean.

Usabiagak ipuin bat baino
gehiago sortu du umeentzat, eta
badaki bere lanak Izurtzan era-
kustea zer den. Izan ere, denbo-
ra gutxian bigarrenez etorriko
da Izurtzara. Urri hasieran, *Ko-
loretako liburuen zaporea* izene-
ko ipuin kontalaritza saioa egin
zuen erabilera anitzeko lokalean.



Udal langilea hesia ipintzen. ATXONDOKO UDALA

Atxondoko San Roken, hesi berria

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak zurezko ba-
randa bat ipini du Arrazolako
San Roke auzoan, ermita ondo-
tik bidegorrira doan eskailera-
ren ondoan. Eskailera tamaina

desberdineko harriz osatuta
dago, eta berau erabiltzen duten
oinezkoen segurtasuna handitzea
da helburua, udal arduradunen
esanetan. Aste hasieran ipini
dute baranda berria.

Matrailuko auzia udalera eraman dute

Gaztetxeko kideen epaiketaren harira, hainbat gaztek konponbidean parte hartzea eskatu zion udalari azken osoko bilkuran; udalak auziagaz "zerikusirik ez" duela gogoratu du. Hala ere, "elkarrizketarako bidea" zabalik dagoela dio udalak

A. M. ZORNOTZA

Astelehen goizaldean, ezezagun batzuek eranskinen bete zituzten Zornotzako udaletxeko beirateak. Bertan, "gaztetxearen etsai" izendatzen zuten udala, eta "soluzioa orain" eskatzen zuten. Hain zuzen ere, epaitegietan dago Matrailu gaztetxeko okupazioaren auzia; bertako kide biri 321.000 euroko zigorra eskatzen diete. Harrezkero, hainbat protesta eta mobilizazio egin dute, baita azken osoko bilkuran ere. Udalak, "protesta bandaliko" gaitzetsi, eta auziagaz "zerikusirik ez" duela gogoratu du ohar baten bitartez.

Irailen, Zornotzako Matrailu gaztetxeko kide bi epaitu zituzten Durangoko epaitegian. Eraiki-naren jabeaz gainera, Zornotzako Udala ere erantzule egiten dute gaztetxeko kideek, "jabearen alde lerratzeagaitik". Udalak argudiatu du auzia "justiziaren esku" dagoela: "Udalak ez du inolako liskarrik gaztetxeagaz,



Zornotzako udaletxea eranskinen jositako agertu zen.

gatazka justiziaren esku dago, ez udalaren esku". Horrez gainera, euren eskaerak "modu zibilizatuan" egiteko deia egin diete gazteei. "Konfrontaziora edo bandalismora jotzen duen edozein protesta mota bazterten

dugu. Elkarrizketarako bidea beti egon da eta egongo da zabalik ekarpenak modu eraikitzailean egin gura dituztenentzat. Beraz, ekintza honen egileak hausnartzera gonbidatzen ditugu", azaldu du Ainhoa Salterain alkateak.

40 lagunek parte hartu dute Zumelegiren garbiketean

40 lagunek parte hartu dute Elorrioko eta Atxondoko Baso Biziak elkartearen eta Elorrioko Udalaren deialdian



Ekimeneko parte hartzaileak.

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udalak eta Elorrioko eta Atxondoko Baso Biziak elkarteak egindako deialdira 40 lagun joan ziren; urtero, Ferixa Nausikoen osteko domekan batzen dira, katiuskak eta eskularruak jantzita, San Agustin eta Elizalde inguruetakoko erreka zatia garbitzeko asmoagaz. Oier Olagorta Ingurugiro zinegotziaren esanetan, iaz baino hondakin gutxiago batu dute eremu berean, eta hori "pozteko moduko datua" da. Horrez gainera, Elizaldeko zubipean iaz beste litxarrerria-bilgarri batu ez izana ere nabarmentu du.

Ondoren, baturiko hondakin guztiak plazara eraman zituzten, gaika banatu eta zegoen edukiontzietara botatzeko. Besteak beste, plastikoa, kartoia, egurra eta bestelakoak batu zituzten.



Ainhoa Salterain eta Amaia Aurrekoetxea.

Asteburuan hasiko dute Zornotzako Jan Alai lehiaketa

29 establezimenduk parte hartuko dute lehiaketa gastronomikoan; 1.000 euroko sari bi banatuko dituzte

A. M. ZORNOTZA

Azaroako asteburuetan Jan Alai 2.0 pintxo lehiaketa egingo dute Zornotzan; aurtengo edizioan, patata tortilla eta gildak izango dira lehiaketaren oinarria. 29 establezimenduk parte hartuko dute, eta tortillarik onenak eta gildarik onenak 1.000 euroko sari bana irabaziko dute. Udalak tokiko establezimenduetako kontsumoa sustatzeko antolatu du lehiaketa, beste urte batez. Patata tortillatik eta gildatik abiatuta, parte hartzaileek proposamen propioak garatu ditzakete, gura beste berrituta. Azaroaren

1ean hasi eta hilaren 29ra arte iraungo du lehiaketak. "Gure helburua tokiko kontsumoa bultzatzea da, bisitariei esperientzia gastronomiko berriak eskaintzea, eta gure taberna eta jatetxeek udalerriko bizitza sozial eta ekonomikoan duten garrantzia nabarmentzea", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Epaimahai profesional batek baloratuko ditu pintxoak, eta, besteak beste, zaporea, gatz puntua, tenperatura eta aurkezpena kontuan hartuko dituzte. Sari banaketa azaroaren 30ean izango da, 12:00etan, Zelaieta zentroan.

Berrizko pilotalekuak Emakume Master Cup jaialdia hartuko du

Partiduak azaroaren 3an izango dira. Elite mailan, Arraiza-Oskoz eta Uriarte-Larrarte izango dira lehiak

A. M. BERRIZ

Berrizko udal pilotalekuak Emakume Master Cup esku-pilota jaialdia hartuko du asteburuan. Azaroaren 3an, 10:00etan hasita, maila desberdinetako partiduak jokatuko dituzte lau eta erdian. 10:00etan hasiko dira partiduak; zortzi izango dira guztira. Elite mailakoak 13:00etan hasiko dira: Arraizak Oskozen aurka jokatu du lehenengoan, eta gero Uriarte eta Larrarte arituko dira nor baino nor gehiago. Aurretik, gazte eta promesen mailetak

lehiak egongo direla azaldu dute.

Bestalde, barikuan, azaroak 1, beste pilota jaialdi bat egingo dute. Hasteko, 15:45ean, umetxoaren esku pilota topaketa egingo dute. Eta 18:00etatik aurrera lau eta erdiko B serie txapelketa jokatu du; Eskirozek eta Egiuren V.ak elkarren aurka jokatu dute; ondoren, binanako norgehiagoka jokatu du, Urrutikoetxea eta Morgaetxeberria Alberdi II.aren eta Arangurenen aurka. Sarrerak hoge euroan egongo dira salgai.

Jon Irazabal eta Nestor Basterretxea, 18. Astolako protagonista

Nestor Basterretxea da azaleko irudia; Gerediagak azaldu du Irazabal gogoratzeko argitalpena dela

A. M. ABADIÑO

Astola aldizkariak bere omenaldia egin gura izan dio Nestor Basterretxeari bere 18. alean. Garazi Arrizabalaga Durangoko Arte eta Historia museoko zuzendariak Bermeoko artistak Duran-

galdeagaz zuen hartu-eman es-tuari buruz idatzi du. Bestalde, abuztuaren 23an zendu zen Jon Irazabal historialaria gogoan izan dute alean, orain 18 urte baino gehiago berea izan zelako aldizkaria martxan ipintzeko ideia.



Astola aldizkariko lan taldea.



POLITIKAN

CARLOS GARCÍA
PP

Etxebizitzarako sarbidea

Durangon etxebizitza bat eskuratzea, hainbat tokitan bezala, gero eta zailagoa da, batez ere gazteentzat. Alokairuaren nahiz erosketaren prezioak langileen soldatak eta familien diru sarrerak baino askoz gehiago igotzen dira.

Hori dela eta, Durangoko Udalean mozio bat aurkeztu dut etxebizitza eskuratzea erraztuko duten neurriak bultzatzeko, batez ere eskaintzaren igoera bultzatuz, horrela prezioak jaitsi daitezten. Hori dela eta, alderdi politiko guztien artean lantalde bat sortu da neurri zehatzak proposatu eta eztabaidatzeko, batez ere, euren etxebizitzak alokatzen dituzten jabeek segurtasuna izan dezaten; modu honetan, askoz gehiagok emango dute pausoa eta alokairuen prezioak ziur jaitsiko dira.

Durangon etxebizitza bat eskuratzea zailtasuna, batez ere gazteentzat, emantzipazioa, familia bat osatzea edo bizi-proiektu bat aurrera ateratzea zailtzen duen drama bat da; horregatik, orain arte hartu ez dituen neurriak hartu behar ditu udalak, hala nola hutsik dauden etxebizitzak zigortzea. Gero eta etxebizitza gutxiago dugu alokatzeko, eta prezioak gero eta garestiagoak dira. Horregatik, neurri berriak hartu behar ditugu, Durangoko gazteak Durangon bizi daitezten.

DURANGALDEA ASTEON

'24 Ordu Digitalean' jokatu da asteburuan

ELORRIO Film laburren Elorrioko lehiaketa ezagunaren edizio berria asteburuan jokatu da. Parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte film labur bat sortzeko. Filmean agertu beharreko esaldia, objektua eta gai zehatza azaroaren 1ean azalduko dituzte antolatzaileek, 17:00etan. Azaroaren 2an erakutsiko dituzte parte hartzaile guztien lanak, 20:00etan, Arriolan. Emanaldia amaitu eta gero, sari bana-keta egingo dute.

Luis Urrengoetxea kaleko jaiak, ate joka

ZORNOTZA Azaroaren 7an hasiko dira Zornotzako Luis Urrengoetxea kaleko jaiak. Lutaber tabernarien elkarteak egitarau zabala pres-tatu du; Sukalki txapelketa, Zornotzako erraldoien saioa, umeentzako jolasak, trikitilariak, herri kirolak, pintxo potea eta igel txapelketa izango dituzte, besteak beste. Kontzertu nagusiak Par-bellum eta Barricadaren omenezko Barrena taldea izango dira. Egitarauko xehetasunak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.

Lan heriotza Boroako industrialdean

ZORNOTZA Ezbeharra urriaren 15ean gertatu zen, Boroako Maderas Etxeari enpresan. Langilea, baina, urriaren 24an hil zen, zaurien larritasunaren ondorioz, ELAk jakinarazi duenez: "Langilea hiru metroko altueratik jausi zen, lanean zebilen zurezko zorua hautsita". Prebentzioan inbertsiorik ez egitea, jardueren koordinazio desegokia eta baldintzen prekaritatea zerrendatu ditu sindikatuak "istripu hilgarrien atzean" dauden "faktore" modura.



DURANGOKO UDALA.

Maria Moliner saria Bibliotekarentzat

DURANGO Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak Maria Moliner saria eman dio Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekari, *Bizenta Mogel Biblioteka Bidaiak: jakintza eta esperientzia mordo baterako sarrera* proiektuagaitik. Bibliotekak "kultura eta hezkuntza-zentro gisa duen eginkizuna berrasmatzeko egindako ahalegina eta sormena" aitortu dizkiote irakurzaletasuna sustatzeko kanpainaren barruan. 10.000 euroko saria lortu dute.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Ezkontzak 2024



DE PEDRO FOTÓGRAFO



MANCISIDOR
1 8 6 6

Andra Mari 9, 48200 · Durango
info@joyeriamancisidor.com
946 810 628

aurkibidea

14

Orrazkera

15

Eztei bidaiak

16

Bitxiak

17

Estetika

18

Arropa

22

Gonbidatuak



23

Jatetxeak


24

Argazkigintza

Estiloz betetako orrazkerak



Ilea eta orrazkera osagarririk garrantzitsuenetakoak dira edozein estilotan. Horregatik, edozein aukera hautatu aurretik probak egitea izaten da onena. Trentzak moda-modan daude eta aukera anitz eskaintzen dituzte, baikoitzaren gustuen eta ilearen ezaugarrien arabera. Horri ere, osagarriak gehitu ahal dizkiogu, loreak edo begiztak. Gogoratu ezkontza egunaren aurretik ilea osasuntsu egoteko tratamenduren bat egitea ere oso komenigarria dela. Animatu eta proba egin!




ILEAPAINDEGIA
JUANAN BUENO
 Ile-apainketa mistoa
 Makillajeak zeremonietarako
667 45 26 29 - 610 69 57 57
 Tronperri, 4 · DURANGO

ARTEKALEA KALEA, 33 DURANGO
bare bare
 ileapaindegia
 Tel.: 946 46 25 43 / 638 281 907

Bitxiak eta ezkontza-eraztunak

Bitxi sofisticatuak zein sinpletasunez betetakoak. Bakoitzak bere gustuen arabera aukeratu dezake egun handi honetarako. 'Look'-ari ukitu berezi bat emateko, esate baterako, lepoa bistan izanez gero lepoko luzeak jantzi dezake.



Ezkontza-eraztun minimalistek elegantzia gehituko diote bitxien konbinazioari



Eneko Unzu
BITXIGILEA

Nahi duzun ezkontza-eraztuna egingo dizugu

enekounzalu.com

JOYERIA TABIRA
DURANGO

Barrenkalea, 15
Tel.: 946 81 42 95

"Ezkon gaiekin lan egitea gure lanaren alderik magikoena da"

VIRGINIA ANSORENA ESTETIKA ZENTROKO ARDURADUNA

Diagnostiko pertsonalizatu batez eta esku onetan jarrita, emaitza ezin hobekak lortzen dira ezkontza egunean distira egiteko. Virginia Ansorenak Durangon duen zentroan horrela lan egiten dute, punterengo teknologia erabilia

Zertan espezializatuta dago Virginia Ansorena zentroa?

Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduetan espezializatuta gaude. Aurpegiari dagokionez, inestetismo guztiei -zimurrei, orbanei, akneari, biguntasunari- aurre egiteko lan egiten dugu, edozein adinetako pertsonekin, gizon zein emakume.

Eta gorputzeko tratamenduei dagokienez?

Argaltzeko prozesuan laguntzen dugu, zelulitisa, biguntasuna zein gai zirkulatorioak landuta. Era berean, emakumeekin haurdunaldian eta erditu ondoren ere lan egiten dugu.

Zein da tratamendu izarra?

Gaztetzeko tratamenduak. Urte asko daramatzat estetika arloan, eta konturatu gara zahartzea prozesu naturala dela, baina modu polit batean egin daitekeela. Hartara, guk tratamendu prebentiboan aldeko apustua egiten dugu, gaztetatik tratamendu sinpleekin hasita, gero konplexuagoak bihurtzen direnak. Gaztetatik irizpide batzuei jarraitzea da erronka, zahartze prozesu hori modu naturalean egiteko, baina beti ondo zainduta.

Gizonak ere gehiago animatzen ari dira.

Gizona presio handieneko aldetik sartu da estetikaren munduan,



Ander Ansorena, Andra Ungureanu, Virginia Ansorena eta Tatiana Suarez.



Virginia Ansorena.

gazte eta polit egotearen alde horretatik. Geroago eta gizon gehiago etortzen da. Hemen baditugu nire adin bueltako bezeroak, osasuntsu zahartu gura dutela barneratuta dutenak, azal on batekin, gazte mantentzea prozesu horren parte nagusia izan barik.

Bezeroen aldetik, zein erantzun jasotzen duzue?

Gure bezeroak maitatzea eta eurek gu maitatzea lortzen dugula esango nuke. Lantaldeko lau kideok asko maite dugu elkar eta lantalde solidoa gara. Pertsona moduan ere, bezeroak gu aintzat hartzea gura dugu. Zentro honek ukitu familiar bat dauka. Nire semeak estetika ikasi du, nire moduan. Eta beste lankide biek urteak daramatzate nigaz. Beti hemen egotea gura nuke.

Bezero berri batek zer aurkituko du hemen?

Lehenengo eta behin, diagnostikoa egiten dugu. Orain, aurpegiko azterketa egiteko makina bat erosi dugu, zimurren sakontasuna eta azalaren biguntasuna neurtzeko. Hemendik hamar urtera irtengo diren orbanak aurreikusten ditu. Diagnostikoa beharrezkoa da.

Punterengo teknologia duzue hemen.

Urtero bi-hiru ekipo berri ekartzen ditugu. Berrikuntzan inbertitzen dugu. Gaur egun, estetika arloko punterengo teknologia dugu eta formakuntzan murgilduta gaude denok, bezeroei merkatuan dagoen onena eskaintzeko.

Ezkontzera doazen emakume asko etortzen zaizkizue eta gizonak ere bai.

Ezkon gaiekin lan egitea gure lanaren alderik magikoena da. Batez ere lan egiten dugun emakumeentzat dena da poztasuna eta ilusioa. Bezero mota honek poz itzela ematen digu. Urte osoan zehar zaintzen ditugu. Seitik zortzi hilabetera gugaz egoten dira, ezkontza egunean ezin hobeto sentitu daitezen. Lana hazten ikusten duzu, egun horretan distira egiteko.



VA
VIRGINIA ANSORENA

Josemiel Barandiaran Kalea, 10
Durango
Tel. 944 35 57 45
@estetica_virginia_ansorena





Alicia Ruedaren proposamen berriak

Alicia Ruedak magia egiten du ezkontzera doazen emaztegaien jantziekin. Ezkontza egunean hainbesteko garrantzia duen jantzia pieza bakar eta berezi bihurtzen du. Ehun bikainekin, artisauro lana egiten du, bai ezkontzera doazen emakumeen kasuan, baita gonbidatuenean ere. Bilboko Atelierrean ametsak egia bihurtzen ditu, ofizioa maitasun handiz landuta.



Alicia Ruedaren kolekzioetan, traje-jakak, bi piezatako jantziak eta bizkarra agerian daramaten soinekoak klasiko bat dira



euskotzarak
MEDA & GOURMET

Ermodo kalea, 3
48200 Durango

Tel.: 946 817 205
info@euskotzarak.com




Nahierara dekoratzeko aholkularitza
Opari bereziak eta osagarriak
Marmolan eta portzelanan lan egiten dugu
Zatoz bisitan!!!!

**Alicia Ruedaren diseinu
askotan begiztek protagonismo
berezia hartzen dute**

Soineko berezi bat bilatzen duenak eskaintza
zabala aurkituko du Alicia Ruedaren Atelierrean;
soineko tradizioaletik aldentuta, exigentziarik
handienarekin sortua eta norberaren moldera egokitua.
Soinekorik bereziena egunik berezienerako





Gorbata eta tximeleta-begizta tradizionalek lekua utzi diete traje informalei. Barruan kamiseta zein alkandora jantzita, pertsonalitate handiko konbinazioak uztartu daitezke. Eta horri zapatila moderno batzuk ipinita, ez da gehiago behar goitik behera elegante egoteko



Jantzi informalak

BoROA
JATETXEA

Boroa Auzoa · Garai Baserria, 11
ZORNOTZA · Tel.: 946 734 747
sala@boroa.com boroa.com

Boroa jatetxean
bizitza errazten dizugu

Edozein ospakizun ahaztezin bilakatzeko lagungarriak diren zerbitzu guztiak eskaini ahal dizkizugu.

KOBBIKA
jatetxea

· KOB'S GASTROBAR ·

San Ignazio auzunea, 8 DURANGO · Tel.: 946 810 003

MUSEO
e/Barco

UNTZIGAIN

Martiatu II Industrigunea
6 z/g partzela - ARRIGORRIAGA

658 93 37 46 / 946715747
www.restauranteuntzigain.es



Olajauregi, toki paregabea zuen egun berezia ospatzeko

Olajauregi ostatu-jatetxeak dua hamar urte ireki zituen atek. Durangaldeko ostalaritzan erro sakonak dituen familia bateko kideek osaturiko proiektua da. Betiko sukaldaritza lantzen dugu, ukitu fin, sortzaile eta berritu bat emanez, denon patriketara egokituta.

Bizkaiko bihotzean, Durango erdigunean zehatzago, historiaz betetako eraikuntza batean gaude. Berrizitutako jatetxe paregabe, moderno eta argitsuaz gain, hamasei gelako ostatua

ere badaukagu bezeroen zerbitzura. Zuen ezkontzaz gozatzeko leku aparta aurkituko duzue. Espazio eksklusiboak ditugu ezkontza handi zein txikiak ospatzeko. Tenpletean, 148 mahaikidek jakiekin lasai gozatzeko tokia dute.

Kristala, 70 mahaikiderentzako edukierarekin, dantzaleku bihurtzen dugu festarekin jarraitzeko.

Horrez gain, berritutako terraza bat ere badaukagu. Zere monia zibilak zein koktelak

egiteko, kanpoko espazio zabal eta polit bat ere eskaintzen dugu. Zuen senide eta lagunekin egun bereziaz gozatzeko, gure lehen-tasuna zuek izango zarete beti.

Kontaguzu zure ametsetako eguna eta gu arduratuko gara egia bihurtzeaz. Menua, koktela, musika, loreak.... zuek aukeratu duzuen guztiarekin. Zuen ardura egunaz gozatzea eta ondo pasatzea izan dadila.

Hartu hitzordua eta bisitatu gure instalazioak, pozik erakutsiko dizuegu gure etxea.






bedim.net
wedding
awards
2024

OLA JAUREGI

Larrasoloeta Kalea, 23, Durango
Tel. 946 20 08 64
www.olajauregi.com

Gonbidatuen elegantzia



Ezkontza baterako aukeratutako arropa beste ekitaldi batzuetarako aprobetxagarria izatea funtsezkoa da. Atenporalak izateko, gomendagarria da kolore eta molde klasikoak aukeratzea. Trajeak eta txaketak zein bi piezatako jantziak beste edozein egunetan ere balioko dizute eta bikain joango zara beti. Ausartu zaitetz koloreekin!



IKUSPEGI BERRIA



Eguneko menua
astelehenetik barikura

Asteburuetan
kartako menua

Pintxoak eta
errazioak egunero

Martitzena eta
eguaztana itxita



Goiuria auzoa 12, 48215 Iurreta • 944 667 41 08



Izorne Luengo. AKEBASO JATETXEA

"Ezkontza bakoitza ezberdina izan dadin ahalegintzen gara"

IZORNE LUENGO AKEBASO JATETXEKO ARDURADUNA

Ezkontza batean jatetxe bat baino askoz gehiago da Akebaso. Egun berezi hau mimo handiz prestatzen lagunduko dizute benetan ahaztezina izan dadin

Zelan doa ezkontza denboraldia?

Oso ondo. Martxoan ekin genion denboraldiari, eta abenduaren 14an amaituko dugu. Hala ere, nabarmenduko nuke orain ez dagoela ezkontzeko data zehatzik. Neguan gutxiago badira ere, asteburu batzuetan izaten dira ezkontzak.

Jendeak Akebaso jatetxea aukeratzen duenean ezkontzeko, zer bilatzen du?

Gaur egun bikoteek baserri edo finka bat gura dute, naturan integratuta dagoena. Ezkontzarako jatetxe osoa hartu gura izaten dute, eksklusibotasuna. Eurak bakarrik egoten dira eta

bertan egiten dute zeremonia, bazkaria, afaria eta jaia.

Zein ezkontza mota egiten duzue gehien?

Bikote guztiei esaten diet ezkontza bakoitza ezberdina izan dadin ahalegindu behar dugula. Bikoteekin egiten dudana elkarriketan ideia hau azpimarra-



tzen diet. Gonbidatuak etortzen direnean, konturatu daitezela bikote horren ezkontza dela, eta ez beste edozeinek egin dezakeena.

Zelan pertsonalizatu daiteke ezkontza bat?

Adibidez, aurreko asteburu batean, neskari bere herriko jaiak gustatzen zaizkionez, banderatoak ipini genituen dekorazio modura. Txaranga bat ere egon zen, herriko jaiak izango balira legez. Hau guzti hau bikoteekin elkarlanean egiten dugu.

Zelakoa izaten da ezkontza prestatzeko prozesua?

Nigaz hartu-emanen ipintzen dira, eta eguna zehazten dugu. Eurekin hitzordua ipini eta ingurua erakusten diet. Ondoren, eurekin dena antolatzen hasten naiz. Martxoko lehenengo ezkontzekin gabonen ostean hasiko naiz buru-belarri. Menu proba eta horrelakoak egingo ditugu. Badaude bikote batzuk urtebete lehenago ha-

sita daudenak, ilusio handia dutelako eta horrela lasaiago geratzen direlako, eta ni pozik. Hemen ia dena antolatzen dugu: loreak, dekorazioa, zeremoniaren muntaketa, gonbidatuen kokapena zehazten duten txartelak, jantokiaren apainketa... Sukaldeari dagokion guztia ere geuk egiten dugu. Adibidez, joan zen asteburuko ezkontzan txerrikumea gura zuten afaltzeko, eta bertan prestatu genuen. Beharrian guztietara moldatzen gara.

Gogoratzen duzu ezkontza bereziren bat?

Orain dela urteak, gizona *Ede-rra eta Piztia* filmeko piztiaren moduan jantzi zen eta neskari abesten hasi zen. Oso hunkigarria izan zen.

Ezkontzetan zer dago modan?

'Ordu zoroa'. Afaldu eta gero, neska argiak dituen kapa bat egaz jantzen da, jendea animatu dadin. Mozorroak egoten dira.

akebaso

San Juan auzoa, 16
Atxondo, Bizkaia
Tel: 946 582 060

akebaso@akebasorestaurante.com

akebasorestaurante.com





Harrapatu zure egun handiaren magia De Pedro argazkilariarekin

Ikaragarri gustatzen zaigu une dibertigarriak eta ezkontza ahaztezina egiten duten une hunkigarriak orekatzea. Barrerak, negarrak, emozioak, dibertsioa, begiradak, keinuak... argazki bakoitza zuen istorioaren funtsezko pieza bihurtzen da. Gure helburua da ez bakarrik zuek irudi harrigarriak eramatea, baita maitasunez gogoratzen duzuen esperientzia dibertigarri eta erlaxatu bat eramatea ere.

Badakigu une horiei aurea hartzen eta prest egoten, oroitzen ezabaezin bihurtzeko. Asko gustatzen zaizkigu presaketak lehen ordutik, une bereziak egunean zehar, eta dantzaldiko une naturalak, zeinetan urduritasunak pasatuta dauden.

Zuen egun handiaren magia naturaltasunez eta dotoreziaz harrapatzen dakien argazkilaria esperientziadun baten bila bazabiltza, egun handi horren parte izatea gustatuko litzaziguke! Elkarrekin, betirako iraungo duten oroitzen ahaztezinak sortuko ditugu, une horiek behin eta berriro berpiztu ditzazuen.

Egin dezagun une oro berezi!

De Pedro Fotógrafo
www.depedrofotografo.com



DE PEDRO

Kaixo! De Pedro Fotógrafo gara, eta duela 30 urte baino gehiagotik gehien gustatzen zaiguna lantzen dugu: ezkontzetan argazkiak ateratzea! Ospakizun bakoitza mundu bat da berez, eta gure helburua une berezi horiek modu natural eta benetakoan harrapatzea da.

Kamera aurrean eroso eta lasai sentitzea da guretzat gakoa. Argazkiak berez ateratzea nahi dugu, egun hain berezi horretan bizi den alaitasun eta emozio guztia islatuz. Ezkondu aurretik zuek ezagutzea gustatzen zaigu, zuen estiloa eta istorioa ulertzea, horrela irudi bakoitzak zerbait berezia eta pertsonala kontatu baitezake.



- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Book-ak
- Industrialak
- Jaiotzak
- Publizitatea

www.depedrofotografo.com
Amorebieta

Aritz Maldonado DURANGO

Leire Vargas idazleak (Durango, 2002) bere bigarren poesia liburua aurkeztu du oraintsu: *Bihotz-museo bat*. Elkar argitaletxeagaz kaleratu du.

Ofizialki Donostian aurkeztu ondoren, Durangon lagun artean aurkeztu zenuen gero. Zergaitik?

Oso gustura geratu nintzen, bihotza beteta. Alde batetik, lagunekin edo kolektiboan aurkeztu nuelako, eta, bestetik, sorkuntzarako toki bihurtu genuelako ekitaldia, liburu baten aurkezpen soila izan barik. Gainera, liburuaren gaineko irakurketa bat inposatzeak kontraesanak sortzen dizkit. Liburutik abiatuta gauza gehiago sortzea formatu ederra eta gozagarria iruditu zitzaidan, eta niretzat zoragarria.

Poesiak jokorako aukera ematen du.

Liburua nondik idatzi dudan azaltzen dudanean, ez nabil zelan irakurri behar den inor behartu guran. Asmo bat izan arren, testuak ematen duena beste modu batera jasotzea guztiz zilegia da. Eta horixe iruditzen zait interesgarriena. Horixe da poesiak duen gauzarik ederrenetariko bat, jokoa ematen duela interpretaziorako. Nik neuk asko gozatzen dut poesia irakurri eta non lurreratu daitekeen pentsatzen. Hori azaltzea garrantzitsua iruditzen zait: liburua nondik idatzi dudanez azaldu dezakedan arren, abiapuntu bat baino ez da, liburua beste kontu bat da, eta irakurleak jasotzen duena beste bat izatea gustatuko litzaidake. Jendearen aldetik ez dut feedback garaturik jaso oraindino, irakurle klubetan jaso dezakedana adibidez, baina goiz da horretarako oraindino.

Bigarren poesia bilduma duzu hau. Lehenengoagaz baino jende gehiago igarri duzu adi?

Adi edo esperoan, ez dakit, baina esango nuke liburu hau askoz ere jende gehiagori heldu zaiola. Aurrekoagaz, ezagutzen nuen jendearengandik jaso nuen erantzuna, sare sozialei eskerrak, eta saria irabazita publikatu zenez, jende gehiagorengana ere heldu zen, baina ezagunengandik jaso nuen erreakzioa; oraingoan, aurrekoa irakurri eta hau irakurtzeko gogoz zebilen jendearen erantzuna ere jaso dut. Nahiko surrealista iruditu zait alde horretatik (barrez).

Eta horrek eragin dizu idazterakoan? Hasiera-hasieran, bestea argita-

"Bizi erritmoek ez dute askorik laguntzen sortzeko"

LEIRE VARGAS IDAZLEA

LITERATURA Leire Vargas durangarrak 'Bihotz-museo bat' poema bilduma kaleratu du, ibilbideko bigarrena. Harremantzeko modu ezberdinei buruzko hausnarketa du ardatz



Leire Vargas.

ratu eta hau idazteko noranzkoa erabaki aurretik, bai, beharbada bai. Erantzun egin gura nion zeozelan hartu nuen maila minimo horretako publikotasunari. Horri erantzun behar niola sentitu nuen, baina uste dut nahiko segituan utzi nuela hori albo batera, eta lan hau ez da inondik inora horren fruitu. Hain zuzen ere, badituz testu batzuk horri erantzunez sortu ditudanak; batez ere, zalantzan ipiniz horrek nigan eragiten duenaz, baina, azkenean, liburu honetan ez ziren oso pertinenteak, eta ez dakit inoiz argitaratuko ditudan, baina ez nuke esango aparteko buruhausterik eragin didanik.

Hasi zinenen bezala idazten duzu?

Egia esan, hori desberdin bizi dut. Batetik, orain enkarguak jasotzen ditut, ipuinetarako, zutabe apur bat literarioagoetarako... Jada ez dut hainbeste denbora sorkuntzari eskaintzeko, bere zentzu zabalenean ulertuta, baina neure burua eraginkorra goa izatera behartzen dut, gura baino gehiago askotan, zentzu produktiboan. Sortzerakoan, niretzat balioa izan dezakeen zerbait izan behar du, besterik barik ludikoa izatetik harago doana.

"LAN HAU NIRE BEHAR PROPIOEI ERANTZUTEKO SORTUA DA"

Alde horretatik, egin gura dudanez, ondoko legoke sorkuntza berriro bizi ahal izatea, baina gure bizi erritmoek ez dute askorik laguntzen horretarako. Bestalde, lan hau aurrekoaren nahiko modu antzerakoan sortu da, nire behar propioei erantzuteko sortua, ez zerbait argitaratu gura nuelako. Kontu batzuk neure barrutik atera gura nituen, eta poesia da nire modua. Edizioari begira, begirada kritiko bat izan dut, eta modu zorrotzean lagundu didaten lagunak izan ditut inguruan. Aurretik argitaratzearen alde on bat da hori.

Beraz, nondik idatzi dituzu poema hauek?

Besteekin egoteko modu desberdin baten bilaketa da liburua, modurik osasuntsuena hartu-emanentzat, norberarentzat. Hartu-emana nahiko modu normatibo batean bizitzetik abiatzen da, barneratuta du *disney* maitasun erromatikoaren mito hori, jerrakiekin; hori lortzeko saiakera txarto irteten da, eta, ondorioz, ahots poetiko hori harremantzeko beste modu batzuen bila hasten da, beste horizontaltasun batetik, sare formatu hori bilatuz.

Ingurukoekin egote hori ere erabaki bat da?

Guztiz. Gainera, gaur egun bizi garen moduak individualismo eta bizi eredu jakin bateratuz bultzatzen gaitu, eta hortik abiatzen da ahots poetikoa. Orduan, sistemak bultzatzen duen hori deseraiki egin behar da, beste era batera harremantzen ikasteko. Eta esango nuke zorte handia izan dudala, dudanez inguruagaitik, eta egiteko beste modu batzuk ikasi ditut bertan.

Esango zenuke Durangaldean idazle belaunaldi berri bat burua ateratzen dabilela?

Ez nintzake liburu hau aurkezten egongo lagun sareagaitik ez balitz, eta literaturan eta sorkuntzan oinarrituriko sare horregaitik. Hurbileko lagunetariko asko sorkuntzatik ezagutu ditut, bai bertsoetatik bai Sorginolan sorturiko Ateneo literatur taldeak; beraz, eskutik doaz gauza biak. Interesgarria da zelan lotzen den harremantzeko moduaren zalantza ipintzea eta sorkuntzarekiko joera. Sorkuntza erdigunean duten inguruak dira, askotan, zalantza ipintzen dutenak zertan gabiltzan, edo egoteko modu sortzaileagoen bila dabiltzanak. Taldean ibiltzeak beste babes bat ematen dizu.

Musika klasikora gerturatzeko gonbita

MUSIKA Durangoko Musika Hamabostaldiaren 35. edizioa hasiko dute, azaroaren 3an, domekan. Bartolome Ertzilla Eskolak eta Kontserbatorioak urtero antolatzen dute zikloa, musika klasikoa herritarrengana hurbiltzeko helburuagaz

A.M. DURANGO

Aurten 35. aldia izango duen Durangoko Musika Hamabostaldia hasiko dute domekan, azaroaren 3an. Musika klasikoa herritarrengana hurbildu gura duen zikloa *Pantomima* ikuskizunak zabalduko du. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Durangon bizi den Gorka Ganso aktoreak elkarregaz sortu duten lana da *Pantomima*. San Agustin kultur gunean izango da, 18:00etan.

Joan zen barikuan aurkeztu zuten Bartolome Ertzilla eskolak eta Kontserbatorioak antolatutako egitaraua. Bertan, Arantza Barrenetxea Bartolome Ertzillako presidentek ekimenaren erreferentzialtasuna nabarmendu zuen: "Musikak irisgarria eta hurbilekoa izan behar du, eta, horregaitik, programa anitza eta orekatua diseinatu dugu, klasiko handiak eta proposamen berri-zaileak uztartuz". Alfredo Sanz irakaslearen berbetan, musika klasikora heltzea "ez da erraza",



Musika hamostaldiaren bultzatzaileak.

oraingoin gutxiago familia osoarentzako ikuskizunetan. "Bada, mailako ikuskizuna eskainiko dute domekan: *Pantomima*", adierazi zuen. Iker Ruiz de Alegria zuzendariak Spanish Brass eta Del Pino laukotean emanaldiak azpimarratu zituen; azaroaren

16an eta 23an izango dira. "Spanish Brass-ek musika eta espioitza-zinema lotuko ditu; Del Pinok, ostera, proposamen klasikoagoa ekarriko du", argitu zuen. Hamabostaldia borobiltzeko, kontzertu korala antolatu dute Arandoño elkarteagaz. Abenduan izango da.



Julen Apella.

Julen Apella idazleak Agustin Zubikarai saria irabazi du

LITERATURA Brriztarrak 'Abizen berri bat' nobela proiektuagaz irabazi du 8.000 euroko saria

A. M. BERRIZ

Julen Apella idazle brriztarrak 8.000 euroko saria jasoko du *Abizen berri bat* izeneko nobela proiektuagaitik. Elkar argitaletxeagaz kaleratuko du eleberria, urtebeteko epean. Argitaletxeak eta Ondarroako Udalak elkarregaz antolatzen dute Agustin Zubikarai saria. Aurkezturiko lanen artean, Apellarena aukeratu du Leire Bilbaok, Xabier Mendigurenek eta Ana Urkizak osaturiko epaimahaia. Epaimahaikideek lanaren "anbizio linguistiko zein intelektuala" azpimarratu dute. "Gaur eta hemen kokaturiko ele-

berri bat izango da, gazte batzuen hartu-emanetan eta noraezean zentratua. Jokin eta Felix lagunak dira eta biak dabilta karrera amaitzen. Oso desberdinak dira izaeraz, eta oso bestelakoak dituzte familia eta klase soziala ere, etorkizunari begiratu eta hartu-eman berriei heltzerakoan horrek dakarren guztiagaz", azaldu dute nobela proiektuari buruz. Julen Apella Santamaria Euskal ikasketetan graduatua da, eta Literatura Konparatua eta Literatura ikasketak masterrak ere egin ditu. *Postal bat desertuan* poesia liburua argitaratu zuen 2023an.



GAI LIBREAN

AINHOA ZABARTE NARBAIZA BEHARGINA

Ume bihurriak

Ingelesko klasean entzungo nuen lehen aldiz? Akaso filmaren batean? Umea nintzela ez zeukan egun duen presentziarik. Estatu Batuetako zinema industriak, eta bestek, ekarri zuten gurera; eta, nola ez, komertzioek bere egin dute aspalditik. Oroitzapena gordetzen banuen ere, zalantzarik ez txikia zela. Urte batzuk pasatu dira, hamar bai, hori aldatu zenetik. Egunduan, kalera irten eta herriko umeak batetik bestera zebiltzan, mozorrotuta. Hor sorpresa, edo sustoa. Halloween. *Trick or treat*.

Plastikozko kalabazak, mozorro pila bat, armiarma sare itxurako oihalak eta gauza beldurgarriak. Jai *yanki* honen hedapena ikaragarria izan da azken hamarkadetan. Baina zabalkunde handi eta azkarrak ekarri du gurera ere konturatzea, edo gogoratzea, gurean ere ospatzen zela Arimen gaua edo Gau beltza.

Herenegun bertan, osabak esana, duela 65 urte inguru kalabazak lapurtzen zituzten ortuetatik. Hauek hutsitu,

aurpegi itxura eman eta kandelak jartzen zizkieten. Zaldia Plazatik San Andres auzorako bidean, errepedean zehar jartzen zituzten. Asmoa, kotxean pasatzen zirenei sustoa ematea zen, eta noski, ea gidari batek edo bestek kalabazaren bat aurretik eramaten zuen ikustea. Ume bihurriak.

"HERENEGUN BERTAN, OSABAK ESANA, DUELA 65 URTE INGURU KALABAZAK LAPURTZEN ZITUZTEN ORTUETATIK"

Zaldibar Barbarik Berba liburuan ere aipatzen da Arimen gaua: "*Domusantu arratzaldien aste sien il kanpayek, il kanpaik joten sittuen, eseuen es erromerid-xaik eta es, e, famelidxako at il baletxikixu moruen da, gurien gero galdu da ori, bañe nire amama, neure amama bixi sanien, ipintie ben ixotute lanparillie, gabien, da arimen gabera pasau arte etzan amatetan a, selako oitturak*".

Seguru asko, zaldibartar nagusi batzuek akorduan izango dituzte oraindik halako oroitzapen bat edo beste. Inguruko herrietan bada berpizkundea. Kalabazak, izara zuriak, antzerkiak, kandelak, ipuin kontaketa eta heriotza. Otxandion, Mañarian, Durangon, Berrizen, Elorrioren, Iurretan. Gurean, momentuz, mozorroak eta halloween. Ea ba datorren urtean Zaldibarren Arimen Gaura hurbiltzen garen.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

EGUENA 31

ABADIÑO Gaba Baltza

Tailerrak, 17:30ean.
Disko txiki festa, 18:00etan.
Txokolatada, 20:00etan.
DJa, 21:00etan.
'Etorri gure etxe sorgindura',
18:00etatik 19:00etara
(probalekuan). (7 urtetik aurrera).
Muntsaratzeko aterpean.

ABADIÑO Musika

Nekktar
Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

ATXONDO Gaba Baltza

Kalabazak hustea, aurpegia
margotzeko tailerra eta *photocall*-a,
16:30ean, frontoian eta plazan.
'Uxa uxa beldurra' (Nerea
Ariznabarreta eta Mariano Hurtado),
18:30ean, Gaztetxean.
Umeentzako ibilbide beldurgarria,
19:30ean (6 urtetik aurrera).
Sorgin dantza eta txokolatada,
20:30ean.
'Errementari' pelikula, 21:30ean,
eskolako eraikin zaharrean
(12 urtetik aurrera).
Atxondo

BERRIZ Gaba Beltza

Kandela eta maskara tailerra,
17:30etik 18:30era
(6-10 urtekoie zuzenduta).
Mozorro tailerra: ekarri izara eta
arropa zaharrak!
(11 urtetik gora), 18:00etan.
Beldurrezko ipuinak, 18:30ean
(6-10 urte) eta 19:30ean
(11 urtetik gora). Elizpean.
Elizondo plazan.

DURANGO Gaba Baltza

Arimen etorrera, 19:30ean,
Tabiratik.
Ikuskizuna, 20:30ean.
Andra Mariko elizpean.

DURANGO Berbaldia

'Sin perder instante ni reservar
fatiga. Euskaldunak eta Montevideo,
Bruno Maurizio Zabalaren
garaietatik egungo diasporara arte'
(Hizlaria: Oscar Alvarez). Europako
Ondare Jardunaldiak.
*Arte eta Historia Museoaan,
19:00etan.*



EUSKADIKO ORKESTRA ETA GORKA GANSO

DURANGO Musika

Gorka Ganso aktoreak eta Euskadiko Orkestrak *Pantomima* ikuskizuna
egingo dute Durangon; bertan, ikuslea fantasiako mundu batera
eramango dute.
Azaroak 3, domeka, San Agustin kulturgunean, 18:00etan.

DURANGO Erakusketa

'Playground' (Xabi Gaztelu).
*Arte eta Historia Museoaan,
azaroaren 24ra bitartean.*

DURANGO Erakusketa

Mikel Hidalgoren lanak.
Ezkurdi aretoan, azaroaren 3ra arte.

ELORRIO Gau Beltza

Arimen gauko kalejira, 18:30ean,
Txintxirri ikastolatik plazaraino.
Musika, dantza eta gaztaina erreak.
Plazan.

IURRETA Gaba Baltza

Mozorroak jantzi eta aurpegia
margotzea, 18:00etan. Txokolatea.
Ipuin kontalaria, 19:30ean.
Ondoren, ibilbide beldurgarria.
Trikitilariak plaza alaitzen.
Plazan.

MAÑARIA Gaba Beltza

Makillaje eta ile-apainketa
tailerra, 18:30ean.

Txistor jana, 20:00etan.
Arimen ibilaldia, 21:00etan.
'Coco' filma, liburutegi zaharrean.
Plazan.

MALLABIA Gaba Beltza

Ginkana, 16:30ean, Kontzejuzarrean
(sei urtetik gorakoentzat)
Kalabazak hustu; aurpegiak eta
karetak margotzea, 18:00etan,
Kontzejuzarrean. Ondoren,
Photocall-a plazan
'Iluntasuna piztu... ekitaldia!',
19:00etan, plazan.
Herritik kantu erronda!
Txorizo pintxoia eta Takittoren
musika! *Mallabian.*

ZORNOTZA Erakusketa

'Bosteko 2024: Karratu beltz leuna'.
*Zelaietako erakusketa gelan,
azaroaren 3ra bitartean.*

OTXANDIO Gaba Beltza

Kalabazak husteko eta aurpegia
margotzeko tailerra, 17:00etan.

Ipuin kontalariaren bila, 18:00etan.
Urduri dantza taldea, 19:30ean.
Ondoren, gaztaina erreak.
Plazan.

ZORNOTZA Erakusketa

'Nemesio Bikandi omenduz'
*Zelaieta zentroan, azaroaren
10era arte.*

ZORNOTZA Gaba Beltza

Eskulanak, ludotekan (17:00-20:00).
Diskofesta beldurgarria, 18:00etan,
Zelaieta parkean.
Ihes-gela, Gazte Txokoan (18:00-
20:00).
Zornotzan.

DOMEKA 1

IURRETA Irteera

Debara bizikleta irteera. Iurreta
Txirrindulari Elkarte.
Iurreta, 09:00etan

ZAPATUA 2

DURANGO Dantza

'Hamaika' (Cielo Raso konpainia).
*San Agustin kulturgunean,
19:00etan.*

IURRETA Irteera

Laidara bizikleta irteera. Iurreta
Txirrindulari Elkarte.
Iurreta, 09:00etan.

ZALDIBAR Elkartasun jaialdia

Terrazero girotua, 19:00etan.
Kontzertua: Reder + Ezeze
+ Dj TotozerMj + Xaukena
Xauk, 21:00etan.
Gaztetxean.

DOMEKA 3

IURRETA Irteera

Laidara bizikleta irteera.
Iurreta Txirrindulari Elkarte.
Iurreta, 09:00etan.

MARTITZENA 5

DURANGO Poesia errezialdia

Gotzon Barandiaran
eta Arkaitz Cano.
Hitz liburutegian, 19:00etan.

ZINEMA

DURANGO**ZUGAZA ZINEMA****Jurado N°2**

barikua 1: 18:00, 20:30.
zapateria 2: 18:00, 20:30.
domeka 3: 17:00, 19:30.
astelehena 4: 17:45, 20:15.
martitzena 5: 17:45, 20:15.
eguztana 6: 19:00.

Scape

barikua 1: 19:00, 21:30.
zapateria 2: 19:00, 21:30.
domeka 3: 19:30.
astelehena 4: 17:45, 20:15
martitzena 5: 17:45, 20:15
eguztana 6: 19:00

Terrifier 3

barikua 1: 19:00, 21:30.
zapateria 2: 19:00, 21:30.
domeka 3: 19:30.

Los Williams

astelehena 4: 17:45, 20:15.
martitzena 5: 17:45, 20:15.

Robot Salvaje

barikua 1: 16:45.
zapateria 2: 16:45.
domeka 3: 17:00.

Dalia y el libro rojo

barikua 1: 16:45.
zapateria 2: 16:45.
domeka 3: 17:00.

Amama

eguztana 6: 19:00.

ELORRIO**ARRIOLA ANTZOKIA****Los destellos**

barikua 1: 20:00.
domeka 3: 20:00.
asteleha 4: 20:00.

24 ordu digitala. Arriolako Film

Laburren Lehiaketa
zapateria 2: 20:00.

Deep sea. Sakontasunaren bidaia.
domeka 3: 17:00.

ZORNOTZA**ZORNOTZA ARETOA****La habitación de al lado**

barikua 1: 20:00.
zapateria 2: 20:00.
domeka 3: 20:00.
astelehena 4: 20:15

Robot Salvaje

barikua 1: 17:00.
zapateria 2: 17:00.
domeka 3: 17:00.

Volveréis

martitzena 5: 20:15.

EGUENA 7

ZORNOTZA Jaiak

Jaien hasiera, 19:00etan.
Pintxo potea, 19:00etatik
20:00etara.
Etxebarría aita-eme trikitilariak,
20:00etan, tabernetan
(Lopenatik hasita).
Luis Urrengotxea kalean.



Ibaizabal Kirol Elkarteko zazpi taldeen familia argazkia, Landako kiroldegiko aurkezpenean.

Ibaizabal eskubaloia kluba, ilusioaren adibide

ESKUBALOIA Oihartzun handiagoko kirolen itzalean, baina etengabeko inurri lanari eskerrak, Ibaizabal Kirol Elkartek eskubaloia tokia egin dio Durangon. Lau talde federatu dituzte. Beste hiru umeenak dira, inguruko ikastetxeekin batera ateratakoak

Joseba Derteano DURANGO

Eskubaloia ez du tradizio luzerik eskualdean, baina apurka bere tokia egiten dabil, neurri handi batean Ibaizabal Kirol Elkartekoek 20 urte baino gehiagoan egindako lanari eskerrak. Beste kirol batzuen oihartzunik barik eta baliabide gutxiagaz, ehun bat jokalarik hartzen dituen

egitura sendoa eraikitzea lortu dute eta etorkizunera begira hazten jarraitzea dute helburu.

Joan zen barikuan klubeko taldeak aurkeztu zituzten, Landako kiroldegian egindako aurkezpenean. Aurtengo zazpi taldeetako jokalariek banan-banan kantzaratu ziren, aurkezleak mikrofonetik euren izena esa-

GEHIENAK NESKEN TALDEAK DIRA, HIRU GUZTIRA; MUTILETAN KADETE MAILAKO DUTE

teagaz batera. Jokalariengan ilusioa nabari zen eta baita harmailetatik ekimena jarraitzen zebiltzan zuzendaritza eraberrituko kideengan ere.

Badituzte motiboak pozik egoteko. Ibaizabaleko zazpi taldeen artean ia ehun jokalarik dituzte. Hiru talde umeenak dira eta Kurutzia ikastolagaz, Landako eskolagaz eta Jesuitak ikastetxeagaz elkarlanean ateratu dituzte. Aurrera begira, San Antonio ikastetxeagaz ere hartu-emanetan dabilzala azaldu zuten zuzendaritzako kideek. Benjamin mailako taldea zein kimu mailako biak mistoak dira.

Gainerako mailetan neskak dira nagusi, kadete, gazte eta seniorretako talde banagaz. Nesketan haur kategoriako taldea baino ez zaie falta maila denetan taldeak izateko. Hutsune horren sorburua 2020ko pandemia da. Orduan, murrizketen ondorioz, ez zen talderik sortu. Beraz, haur kategoriako gaztetxoak kadeteekin dabilzta. Mutiletan talde bakarra dute oraingoz, kadete mailakoa. Umeak hazten doazen neurrian, mutiletan ere talde berriak sortzea dute helburu.

Juanjo Morenoren lorratza

Juanjo Moreno izen-abizenak irakurtzen dituenari saskibaloia etorriko zaio burura automatikoki. Durangoko saskibaloia ez zen gaur dena izango bera barik. Baina beharbada batzuek ez dute jakingo Ibaizabal eskubaloia

klubaren sorreran izan zuen eragina. Txinparta pizten lagundu zuen. XXI. mende hasieran emakume asko zebiltzan saskibaloian Jesuitak ikastetxean, eta ez zuten tokirik denentzat. Baina ez zuen umerik kirola egiteko alternatibarik barik utzi gura. Orduan, Bego Oskoz Etxeberriari (Durango, 1970) deitu zion eta bien artean benjaminen eskubaloia taldea sortu zuten Jesuitak Ikastetxean. 2003a zen eta orduan ereindako hazi horretatik ernatu zen Ibaizabal.

Morenok bazekien nori deitu. Bego Oskozen eskubaloia ibilbidea ez da edozelakoa. Jokalari moduan Lehenengo Mailan jokaturikoa da, Basauri taldeagaz. Urte batzuk geroago, talde hori bera entrenatu zuen Lehenengo Mailan. Euskadiko selekzioagaz ere lan egindakoa da haur kategoriako eta gazte mailako jokalariekin.

Atzera begira jarrita, hamar-kada bitan egindako bideagaz "harro" dago Oskoz. "Poza ematen dit gaur egun nora heldu garen ikusteak. Ez da erraza jendea eskubaloira erakartzea, baina apurka aurrerapausoak ematen gabilzta", esan du.



BIDEOA WEBGUNEAN:

Eskaneatu aldameneko QR kodea.

Nagusiek sorpresa ematea helburu

Emakumeen senior taldea klubeko ikur nagusia da gaur egun. Nagusiak behetik datozen gaztetxoek ispilu dira. Ibaizabal sortu zenean, emakumeen taldea izan zen aurreneko taldea, eta harrezkero joera horixe errepikatu da: mutiak baino neska gehiago egon da beti. Gaur egun ere nesken hiru talde daude, eta bakarra mutilena.

Talde nagusiaren ardura esperientzia handiko entrenatzaile bik dute: Bego Oskozek eta Melchor Vicariok. Taldeak Bizkaiko ligan jokatu du gaur egun, eta erronka bat dute denboraldi berriari begira. "Sorpresa" eman eta goiko postuen borrokan ibili gura dute. Lehenengo bost sailkatuen artean geratzen badira, Euskadiko ligara igotzeko kanporaketak jokatzeko sailkatuko dira, eta, behin igoera fasea jokatu, edozer

gertatu daiteke. "Konplikatu izango da, badakigu, baina ilusio handia dugu eta prest gaude ahalegina egiteko", adierazi du Oskozek oraintsu hasi den denboraldiari begira.

Zapatuan, etxean

Orain, bost jardunaldi joan direnean, sailkapeneko bederatzigarren tokian daude. Datorren zapatuan, C.B. Jarrilleras taldea hartuko dute etxean. Partidua 16:30ean jokatuko dute, Landako kiroldegian. Durangarrentzat ez da norgehiagoka erraza izango, Portugalteko taldea sailkapeneko laugarren tokian kokatuta dago eta. Baina Ibaizabalek irabaziko balu, sailkapenean gorantza egiteko aukera izango luke, eta horretan ahaleginduko dira zaleen laguntzagaz.



Ibaizabaleko seniorren taldea, aurkezpen egunean.

Errege Koparen atarian, entrenatzaile berri bila

FUTBOLA Julen Guerrerok hamar partidu iraun du Amorebieta futbol taldean. Emaizta txarren ondorioz, kargutik kendu dute asteon. Talde zornotzarrak egoera deseroso horretan egingo dio aurre, gaur, Errege Kopako lehenengo kanporaketari

Joseba Derteano ZORNOTZA

Amorebietak kargutik kendu du Julen Guerrero entrenatzailea, Lehen Federazioan hamar partidu jokatu eta gero. Partidu horietan sei puntu lortu ditu, garaipen bakarragaz. Talde urdina Lehenengo Federazio Mailako azken sailkatua da eta best puntura du salbazioa.

Datu horiek nahikoa izan dira zuzendaritzarentzat Guerrero kaleratzeko. Martitzen iluntzean jakinarazi zuten erabakia. "Zuzendaritza Batzordeak eta Kirol Zuzendaritzak erabaki mingarri hau hartu dute, lehenengo taldeak bere jokoan, emaitzetan eta sailkapen ibilbidean inflexio puntu bat behar duelako konbentzitutak", adierazi zuten klubetik ohar batean. Hile hauetan erakutsitako "profesionaltasuna" eta "dedikazioa" eskertu zizkioten Guerrerori eta bere ordezkorearen izena "hurrengo egunetan" jakinarazteko lanean dabilzala aurreratu zuten.



Julen Guerrero, Amorebietaren partidu batean aginduak ematen. SD AMOREBIETA

Gaur Errege Kopa

Ez da Errege Kopari aurre egiteko egoerarik onena, baina ez dago besterik. Amorebietak gaur bertan jokatuko du lehenengo kanporaketari dagokion partidua, Aragoiko Barbastro taldearen

zelaian. Norgehiagoka 19:00etan hasiko da. Une honetan Kopa ez da Amorebietaren buruhausterik handiena, baina garaipen bat moral dosi handia litzateke pozen beharrea dauden jokalariei eta zaleentzat.



Café Dromedario Flotamet taldeko Ander Mendizabal abadiñarra iaz Zornotzan.

Zornotzako ziklo-krosak erreleboa hartuko dio Elorrikoari

TXIRRINDULARITZA Hilabeteren barruan Durangaldean lehiatuko diren hiru probetatik bigarrena zapatuan da

J.D. ZORNOTZA

Ziklo-kros denboraldia martxan da eta eskualdeak hiru lasterketa hartuko ditu hilabeteren barruan. Joan zen asteburuan Elorriko ziklo-krosa lehiatu zuten, zapatu honetan Zornotzak hartuko du erreleboa eta azaroaren 17an Berrizkoaren txanda izango da.

Zornotzako ziklo-krosa Jauregibarria inguruko landan egingo dute eta Bizkaiko Koparako puntuagarria izango da. 10:00etan master mailako lasterketak hasiko dira, 11:00etan kadeteena, 12:00etan nesken opena eta junior

mailakoa, eta 13:00etan gizonen opena eta master 30 kategoriakoa. Arratsaldean, 14:00etatik aurrera, umeen txanda izango da, mailarik maila.

Joan zen asteburuko Elorriko probako openean, Ainara Elbus-to nafarra eta Aitor Hernandez ermuarra nagusitu ziren. Nesken junior mailan, bigarren sailkatu zen Laida Hierro durangarra sailkatu zen bigarren, eta Irati Quintano berriztarra hirugarren. Master 60 mailan, Elorriko Banan-Banan elkarteak Roberto Camiruagak hirugarren egin zuen.

JOKALDIA

GABRIEL BARRANCO DEVESA LARRASOLOETAKO XAKELARIA

Larrasoloetaren urteurrena eta festa

Urte batzuk igaro dira Durangon xakea ezarri zenetik, 60ko hamarkadaren amaieran ekarri zuten Maristek; 1968. urtearen inguruan aukerako xake ikasgaia sortu zuten seitik zortzi urtera bitarteko haurrentzat, eta hortik sortu zen hiribilduko lehen xake kluba, Durango izenekoa. Geroago, 60ko hamarkadaren hasieran, elkartearen zatiketaren ondorioz, Larrasoloeta kluba sortu zen. Banaketa hartatik lau hamarkada igaro dira jada. 40 urtean klubak denboraldi eskasak bizi izan ditu, baina xakea orokorrean bezala, azken urte hauetan une goxoa igarotzen ari gara.

Gaur egun, udalaren laguntza eta hainbat babesleren euskarria dugu ekintza ezberdin asko antolatu ahal izateko; ia 50 bazkideren eta 30 bat haurren bultzadarekin eta ilusioarekin, duela 40 urte hasitako bidea jarraitzen dugu etorkizunari begira.

2024. urte hau benetan berezia izaten ari da Larrasoloeta Xake Taldea osatzen duen familia txikiarentzat,

ekintzaz eta 40. urteurreneko ospakizunetan murgildurik. Azkenetako bat '40. urteurreneko Adiskidetasunaren Txapelketa' arrakastatsua izan zen, joan zen irailaren 21ean Durangoko Landako Gunean egin zena eta 40 xake talde biltzea lortu zuena (160 jokalar); normalean, 10-15 talde biltzen dira. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako, Errioxa-ko, Kantabriako, Asturiasko eta Kataluniako taldeak etorri ziren.

"40. URTEURRENAREN BARRUAN, DOMEKAN XAKEAREN FESTA OSPATUKO DA DURANGON, LANDAKO GUNEAN"

40. urteurrenaren barruan, beste ekitaldi garrantzitsua domekan (azaroak 3) Landako Gunean ospatuko den 'Xakearen Festa' izango da. Adin guztietako pertsonen zuzendutako jaialdi honetan, noski, xake partidak egongo dira (partida azkarrak), maila guztietako umeentzat, jubilatuentzat eta helduentzat. Ekitaldiko goizeko atal hau xake eskola aurkezteko erabiliko da; aipatzekoa da aurten nagusien xake eskola sortu dugula (18 urtetik gorakoentzat). Eta horretaz gain, arratsaldean jarduera ezberdinez betetako festa izango da: eskulanak, saskibaloia, estanpazio-tailerra, photocall-a, aurpegi pintura, jokoak, puzgarriak, kutxak eskalatzea, kontzertua, xake erraldoia... Gainera, une oro, kafetegia eta 'Xakearen Museoa' egongo dira.

Beraz, laburbilduta, erraz bereiztu daiteke gure jardunaldien oinarritzko helburua: xakea sustatzeaz aparte, antzinako joko honetara hurbiltzen den edonor ez aspertzea.

GUARDIAKO BOTIKAK

AZAROAK 1, BARIKUA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

AZAROAK 2, ZAPATUA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**AZAROAK 3, DOMEKA**

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

AZAROAK 4, ASTELEHENA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza**AZAROAK 5, MARTITZENA**

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**AZAROAK 6, EGUAZTENA**

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**AZAROAK 7, OSTEGUNA**

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK




GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



DURANGO

Angel eta Liher


Angel Aniak eta bere iloba Liher Aniak urteak egin dituzte urriaren 15ean eta 23an. Zorionak bioi eta mosu handi bat familia guztiaren partez. Asko maite zaituztegu!



ELORRIO

Zacarias Castillo

Zorionak, aitite! 88 muxu zure familiaren partez! Jarraitu beti bezain sinpatiko! Asko maite zaitugu!



DURANGO

Zorionak, Nahia!

Mile mosu hain gustoko dekozu(e)n Durangaldetik potzuen beste aldera!

Urte askotarako!

Zorionak Xxxx (986.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurra helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaituzte Anbotoren ordezkarietara edo deitu

ESKELAK

ESKELA



Manu Igartiburu Zabala

Orain 56 urte Elorrioko Ikastola sortu zuen talde eragileko kidea

Zuek ereindako haziak urte luzeetan uzta oparoa emango du. Eskerrik asko, Manu.




Azaroak 6 18:30
LIBURU AURKEZPENA EGILEEKIN
ANDER IZAGIRRE ETA ZUHAITZ GURRUTXAGA
Gaztefaniaz

Iurreta
Bazantze Udaia
BIBLIOTEKA

SARRERA GONBIDAPENAREKIN
ERRESERBAK
946 81 27 26
688 863 736
biblioteca@iurreta.eus



DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Aterkia

Heldu da aterkia ateratzeko sasoa. Heldu da aterkia atera eta galtzeko sasoa. Heldu da aterkia atera, galdu eta beste bat lapurtzeko sasoa. Kurioso da: lapur txiki bat daukagu denok geure barruan. Bueno, batzuek besteek baino handiagoa, baina ederto disimulatzen dute.

Kalean poltsa ostu diotenari elkartzasuna erakutsiko diozu, eta kapaza zara lapurraren atzetik arineketan joateko. Baina denda-tik irtetea, kanpoan euria zarra-zarra ikusi eta aterkia non-baiten ahaztu duzula konturatzeko bazara, elkartzasuna zaborrontzira botako duzu. Atzean inor bada-goen ikusi, lelo plantak egin, eta beste pertsona baten guardasola hartuko duzu di-da batean. Guardasol politena, bide batez. Edo, agian, zeuri ostu dizute euritakoa, eta mendeku lez beste bati lapurtzera zoaz. Horrela, kate deliktibo luze bat sortuko duzu, estafa piramidalen parekoa. Azkenean nor-bait kaltetua izango da eta zure erruagatik pneumonia bat harrapatuko du. Allakuidas. Pikutara kode zibikoak. Badago aterki-lapurren isilpeko kode bat, sekretu bat, delitua zuritzen duena. Niri behin liburutegian -liburutegian, bai, benetan nabil- lapurtu zidaten aterkia, eta etxera bidean urakan batek harrapatu ninduen. Ez du barkamenik. Madarikatua zu, lapur kupidagabe halakoa. Domekan dotore jantzi eta meza-ra joango zara gainera. Telebista piztu dut eta, munduaren prebisioa ikusita, guardasola beharko dugu bai. Euriak aterkipean edo izarapean harrapa zaitzala.

AKUILUA

"Larranon esnea batu eta bizkarrean ekartzen nuen etxera"

ANTONIO ALKORTA BILBAO ARTZAINA (AXPE, 1944)

Antonio Alkortak inork baino hobeto ezagutzen du artzain ogibidea. 67 urte daramatza ofizioan. Irailean Axpen egindako Artzain Egunean omendu egin zuten

Joseba Derteano ATXONDO

Badaki erretiroa ez duela urruti, baina gorputzak eusten dion bitartean artzain jarraitzeko asmoa du Antonio Alkortak.

Familiatik datorkizu artzain tradizioa?

Bai. Aita artzaina nuen. 67 urte daramatzat artzain. 13 urte gaz hasi nintzen. Orduan, Anboto ostean ibiltzen genituen ardiak. Larranon esnea batu eta bizkarrean ekartzen nuen etxera. Egunean joan-etorri bi egiten nituen.

Beti Axpe inguruan ibili zara?

Ia beti. Urte batzuetan Elorrioko Gazeta auzora eramaten genituen ardiak, negua pasatzera, azarotik martxora. Egunero bizikletan egiten nuen harako joan-etorria.

Artzain Eguneko omenaldian argazki bat erregalatu zizuten. Bertan zeu eta beste pertsona bat ageri zarete. Nor da lagun hori?

Faustino Oruna 'Karkun'. Artzaina bera ere. Lagunik handiena nuen. Beste gizon klase bat zen eta hartu-eman berezia geneukan. Mendian bakoitza bere aldetik ibiltzen ginen, baina elkartzen ginenean berbataldiak egiten genituen. Aspaldi hil zen eta falta handia utzi zidan, baina zer egingo duzu ba!



Antonio Alkorta bere ardiekin, Axpeko landa batean.

Artzain bizimodua gogorra da?

Bai, bizimodu gogorra. Artzainak ez du ez zapaturik eta ez domekarik, batez ere bildotsak jaiotzen direnean. Haren kargu egin behar da. Normalean, ardiak ondo hartzen ditu bere bildotsak, baina banaka batzuek bertan behera

uzten dituzte. Orduan, norberak gobernatu behar ditu bildotsak: harrapatu, esnea eman... Behar-leku txarra!

Ahalegindu zara inoiz ofizioa aldatzen?

Behin probatu nuen, antzina. Lantegi batean hasi nintzen eta

hamabost egun iraun nuen. Ez zen niretzako bizimodua. Lar lotua zen eta ni mendian aske ibiltzera ohituta nengoen.

Artzain gutxi geratzen da?

Bai, gutxi. Lehenago, zapatu gauetan kuadrilla elkartzen ginen, tragoa jo eta kontuak kontatzeko. Asuntza inguruan hogeit bat artzain batzen ginen batzuetan, hemengoak: Urkiolakoak, Oletakoak... Gustua izaten zen kuadrillan egotea. Egiarik inork ez zuen esango baina! (barrez). Haiek ere joan ziren.

Zeu izango zara bakarrenetarikoa.

Bai, holantxiik da. Gazteren bat edo beste badabil: Urien abadiñarra, Arrazolan oraintsu hasi den bat... Gehiago lagunduko baliote! Nik txabola dut Axpen, orain ez dut erabiltzen eta neguan Arrazolako gazteari uzten diot. Guk egin dugu geurea eta gazteari lagundu behar zaio.

Antonio, noiz arte?

Beste urtebete? Bi? 320 ardi izandakoa naiz. Gaur egun 80 ditut eta larregi! Behin adin batera ezker... 50 ingurugaz nahikoa nuke. Baina ahal dudana arte eutsi gura diot. Ardiak kenduko banitu ez dakit zer egingo nuen. Denbora asko buruari bueltak emateko. Burutazio larregi! Neure inguruan horixe ikusi dut jubilatut diren artzainekin. Orain behintzat burua okupatuta dut eta entretenitu egiten naiz. Betiko ez gara, baina ahal dudana bitartean eutsiko diot.

urriak 24 - azaroak 14

Egin eskaera!



errigora.eus



Eman bultzada,
indartu euskara

**Agerreko uzta
euskarari puzka**